

PARNA% COLOMBIANO
EN EVZKERA

KOLONBIAR
OLERKI - TXORTA
EVZKERAZ



EDITORIAL VASCA
>EKIN<
BVENOS AIRES

PARNASO COLOMBIANO
EN EUZKERA

KOLONBIAR
OLERKI-TXORTA EUZKERAZ

**PARNASO COLOMBIANO
EN EUZKERA**

**KOLONBIAR
OLERKI - TXORTA
EUZKERAZ**

Editorial Vasca EKIN S.R.L.
EKIN Euzkal Argiáldaria
Perú 175 - Buenos Aires

*Reservados los derechos
del autor*

*Queda hecho el depósito
que marca la ley*

Impreso en la Argentina — Printed in Argentina

Artes Gráficas Sebastián de Amorrotu e Hijos S. A. I. C. y F.
Luca 2223 — Buenos Aires

De este libro han sido
impresos TRESCIENTOS
ejemplares numerados
del 1 al 300, no venales.

Ejemplar N^o 236

Liburu onetatik irureun
ale irarri dira l'tik
300'ra zenbakituta,
saldu ezikak..

236 garren alea

Patrocinó el Centro Vasco de Bogotá.

Cuidó de la edición Francisco de Abrisqueta.

Dirigió la traducción el P. Jagoba Onaindia,
premio literario euzkérico José Antonio de Aguirre 1967.

Tradujeron Lin Akesolo, Jon Beistegi, Iñaki Goikoetxea,
Sabin Muniategi y Jagoba Onaindia.

Ilustraciones de Luzuriaga.


Bogota'ko Euzko Etxeak babespean artu dau.

Abrisketa'tar Pantxeska'k, izan dau argitalpenaren ardura.

1967 garreanean, Agirre'tar Joseba Andoni'ren,
euzkal olerti saria jaso eban Onaindia'tar Jagoba
aitaren zainpean egin dira itzulpen lanak.

Itzuli dabe Lin Akesolo'k, Jon Beistegi'k, Iñaki Goikoetxea'k,
Sabin Muniategi'k eta Jagoba Onaindia'k.

Marrazkiak Luzuriaga'k,



homenaje

PARNASO COLOMBIANO EN EUZKERA
es la sentida ofrenda de los vascos de Colombia a Colombia,

La pequeña colectividad vasca residente en la República no hubiese podido presentar a la acogedora tierra que la recibió, manifestación más íntima y pura que los versos de poetas colombianos vertidos al milenarismo idioma vasco, al euzkera.

No es la primera vez que llega el remoto verbo euzkérico a la patria de Rufino José Cuervo y Urisarri. Vino con las primeras carabelas, descubridoras de los litorales, con de La Cosa y Andagoya. Arribó en las naves conquistadoras: "Eran muchos idiomas, parte escoceses, parte ingleses, flamencos, la mayor parte vizcaínos y españoles e italianos, cerca de treinta personas que en un apuro no comprendían uno al otro", según Jerónimo Koehler. Se habló, confundido con el kuna y el español, en la primeriza ciudad continental, en Santa María la Antigua del Darién por boca de Za-

omenaldi

KOLONBIAR OLERKI-TXORTA EUZKE-
RAZ, Kolombia'ko euzkotafak Kolombia'ri egi-
ñiriko biotz-opari samurra dozu.

Laterri ontan bizi dan euzko gizatalde txi-
kiak ezin eikeon aurkeztu abegi onez artu
ebazan lur txeratsuari, aspaldiko euzkal izkera
zarrera, euzkerara itzulitako kolonbiar olerka-
rien bertsoak baiño erakuspen bizi garbiagorik.

Urriñetako euzkal mintzoa ezta lenengoz el-
tzen Errufin Jose Cuervo ta Urisarri'ren aberrira.
Itxas-ertzok ezagun-azo ebezan lenengo ur-
ontzi ta karabelakaz etorria da, Lakotza ta An-
dagoia'gaz nunbait. Egiz, ontzi garaileakaz
etorri zan: "Izkuntza askotakoak ziran, bai esko-
ziarrak, bai inglesak, flamenkuak, geienak biz-
kaitarrak eta espaiñarrak eta italiarrak, ogetamar
bat lagun estualdian alkafi ulertu ezin eutsoe-
nak", Jeronimo Koehler'ek diñoanez. Kuna ta
espaiñeraz naste itz egin zan luíalde ontako
len-urian, Darien'go Andra Mari Antigua'koan,
Tierra Firme'n lenengo endore izan zan Zamu-

mudio, el primer alcalde de Tierra Firme, de Arbolancha, el emisario del otro mar, y por los Caycedo, Gamboa, Vizcaíno, Baracaldo, Orduña, Jáuregui, Basozabal, Azpeitia, Astigarraga, Recalde, Ochoa, Beltrán de Guevara y Olano de quien se dijo que: "había allí familiares y muchos otros vascongados de su lengua". Rompió el euzkera el silencio de los claustros, sonó recio entre la algarabía de los talleres artesanales y de las encomiendas en las altiplanicies andinas. Dejó su impacto en más de un "vizcainismo" no exento de gracia, y, sobre todo, quedó para siempre en dos mil apellidos vasco-colombianos. Ilustres, muchos. Inconfundibles, todos.

Y aquí está de nuevo, viejo y actual, vivo y cultivado, el idioma del paleolítico preindoeuropeo. Raíces, semántica y morfología de quince mil, de veinte mil años — ¡quién sabe!— diciendo la lírica joven de escritores colombianos consagrados, clásicos y modernos.

Son, así, estas traducciones, una prueba más del vigor y el resurgir de la lengua de los vascos. Responden, incontestables, a la pregunta muy oída: ¿Existe una literatura en vasco? Porque nunca ha sido más extensa y floreciente que en este siglo.

PARNASO COLOMBIANO EN EUZKERA,
la primera selección de poesía de América

dio'ren agoz, eta beste itxasoko mezulari izan zan Arbolantxa'ren agoz; baita Kaizedo, Ganboa, Bizkaitara, Barakaldo, Orduña, Jauregi, Basozabal, Azpeitia, Astigarraga, Errekalde, Otxoa, Beltran Gebara ta Olano be-onetaz esan bait-zan: "ba-ziran an bere senidartekoak eta bere izkerako beste ainbat euzkaklun"; oneik danok euzkeraz mintzatu ziran. Lekaidetxeetako ixilla euzkerak eten eban, eder-langilleen zalapart artean zoli ots egin eban, baita Andes goi-zabaldietako mezu-egitekóetan be. "Bizkaitar era" politetan sari itxia dau bere kutsua, ta, batez be, betiko gelditu diran bi milla euzko kolonbiar abizenetan. Leiñargiak, asko; ezin-nastuak, danak.

Eta emen daukagu bafiro be, zar ta gaurko, bizi ta landua, indoeuropear auíeko arri-aroko izkuntza. Amabost milla, ogei milla —nok daki!— urteko itz eioak, adieraz-lege ta mintzo—eiteak kolonbiar idazleen lirika gaztea—klasikuak eta gaurkoak, danak eder-aldarrikatzen.


Itzulpen oneik, orrela, euzkotafen izkuntzak dauan arnas ta bizi-naiaren agiri uka-eziñ dituzu. Sarri entzuniko itaun oni argi ta garbi erantzuten dautse: Euzkeraz ba ete da ele-ederrik? Iñoiz ezta, ba, izan gizaldi ontan baiño zabal loratsuagorik.

KOLONBIAR OLERKI-TXORTA EUZKE-
RAZ, ots, Amerika'ko olerki bilduma Euzka-

traducida al idioma de Euzkadi, es también, una muestra singular y preciosa, de la fuerza renacentista de las letras vascas contemporáneas.

Cuantos han colaborado en esta antología bilingüe, lo han hecho con el común deseo de brindar a Colombia y a América, la más expresiva y amada de las creaciones del alma vasca: el euzkera antiquísimo y presente, esencia primitiva vaciada, esta vez, en pensamientos colombianos.

Bogotá, día de Xabier, 1967.



di'ko izkuntzara biurtua, gaur euzkal ele edefak dauan pizkunde kementsuaren erakutsi txalogari ta bikaiña be badozu.

Elebiko lorategi ontan lan egin dabenak, euzko gogoaren sorpenik bizi maitetsuena: euzkera, zar-zar ta gaurkoa, aspaldiko izatea, oraingoz kolonbiar burutapenetara aldaturik: Kolombia'ri ta Amerika'ri eskintzeko naikari zintzoz beteta jardunak dira.

Bogotá, Xabier eguna, 1967.

Indice

aurkibide

índice

Homenaje	10
OCTAVIO AMORTEGUI	
Recuerdo	26
JORGE ARTEL	
La cumbia	28
PORFIRIO BARBA JACOB	
Canción de la vida profunda	34
JUAN JOSE BOTERO	
Quiero ser gato	38
JOSE EUSEBIO CARO	
En alta mar	52
EDUARDO CARRANZA	
Soneto a Teresa	56
Vago soneto	58
Placer de amor	60
CARLOS CASTRO SAAVEDRA	
Plegaria desde América	62
EDUARDO CASTILLO	
Al oído	74
A un pastor de almas	76

aurkibide

Omenaldi	11
OCTAVIO AMORTEGUI	
Oroipen	27
JORGE ARTEL	
Kunbia	29
PORFIRIO BARBA JACOB	
Bizitza sakonaren kanta	35
JUAN JOSE BOTERO	
Katua izan nai dot	39
JOSE EUSEBIO CARO	
Itxaso zabalean	53
EDUARDO CARRANZA	
Amalaukoa Terese'ri	57
Amalauko lausotsua	59
Maitasun irritsa	61
CARLOS CASTRO SAAVEDRA	
Amerika'tik eskaria	63
EDUARDO CASTILLO	
Belarrira	75
Gogo-artzain bati	77

JULIO FLORES	
Tus ojos	78
¡Dios mío!	80
"Le aserraron el cráneo".	80
Idilio eterno	82
Año armónico	86
ALFREDO GOMEZ JAIME	
Crepúsculo	106
GREGORIO GUTIERREZ GONZALEZ	
Memoria sobre el cultivo del maíz en Antioquia	108
LEON DE GREIFF	
Canción de Sergio Stepany.	120
CORNELIO HISPANO	
Elegías cancanas	124
Gavillas de oro	130
¿Yo creo en Dios?	136
JORGE ISAACS	
Colombia	140
LUIS CARLOS LOPEZ ESGAURIAZA	
Versos a la luna	142
Versos futuristas	142
A bordo	144
Noche truculenta	146
Mi española raza	146
ROBERTO MAC DOUALL	
Bárbula	150
JOSE MANUEL MARROQUIN	
La perrilla	152
RAFAEL MAYA	
Todo pasó	170

JULIO FLOREZ	
Zure begiak	79
Ene Jainkoa!	81
"Kaskarra eutsoen zerratu".	81
Maite-eresi betikorra	83
Urte ereskidetsua	87
ALFREDO GOMEZ JAIME	
Illunsentian	107
GREGORIO GUTIERREZ GONZALEZ	
Antioikia'ko arto-landatzearen gomutamena	109
LEON DE GREIFF	
Sergio Stepansky'ren leloa	121
CORNELIO HISPANO	
Kaukanar eresiak	125
Urrezko azaoak	131
Siñisten dot Jainkoagan?	137
JORGE ISAACS	
Colombia	141
LUIS CARLOS LOPEZ ESCAURIAZA	
Illargiari bertsoak	143
Etorkizuneko bertsoak	143
Ontzian	145
Gau gordiña	147
Nere españiar odola	147
ROBERTO MAC DOUALL	
Barbula	151
JOSE MANUEL MARROQUIN	
Txakurtxua	153
RAFAEL MAYA	
Dena joana	171

EPIFANIO MEJIA	
El canto del antioqueño.	172
RICARDO NIETO	
La canción del hombre triste.	178
RAFAEL POMBO	
El renacuajo paseador.	182
EDUARDO POSADA	
La bandera colombiana.	188
JOSE RIVAS GROOT	
Constelaciones.	192
JOSE EUSTASIO RIVERA	
Amorosa y fecunda.	198
HECTOR ROJAS HERAZO	
Espina para clavar en tus sienes.	200
JORGE ROJAS	
Momentos de la doncella.	202
JOSE ASUNCIÓN SILVA	
Nocturno.	208
Serenata.	212
Los maderos de San Juan.	214
MANUEL URIBE VELASQUEZ	
Ante la tumba de un usurero.	218
GUILLERMO VALENCIA	
Anarkos.	220
LUIS VIDALES	
El paseo.	246
ISMAEL ENRIQUE ARCINIEGAS	
Canto al río Magdalena.	250

EPIFANIO MEJIA	
Antiokiarraren kantua	173
RICARDO NIETO	
Gizon itunaren abestia	179
RAFAEL POMBO	
Igeltxo ibiltaria	183
EDUARDO POSADA	
Kolonbiar ikurriña	189
JOSE RIVAS GROOT	
Izardiak	193
JOSE EUSTASIO RIVERA	
Maitari ta emankor.	199
HECTOR ROJAS HERAZO	
Zure buruan sartzeko arantza.	201
JORGE ROJAS	
Neskatx baten uneak	203
JOSE ASUNCIÓN SILVA	
Gabekoa	209
Aueta	213
Doniane-zurak	215
MANUEL URIBE VELASQUEZ	
Lukurreru baten illobi aurrean	219
GUILLERMO VALENCIA	
Anarkos.	221
LUIS VIDALES	
Egurasketa	247
ISMAEL ENRIQUE ARCINIEGAS	
Magdalena ibaian	251

**PARNASO COLOMBIANO
EN EUZKERA**

**KOLONBIAR
OLERKI - TXORTA EUZKERAZ**

OCTAVIO AMORTEGUI
(1901-)

Recuerdo

Nostalgia del retorno en la carreta
dorada, tras la siega ponentina. . .
Yo amaba el cielo por la golondrina,
tú amabas el jardín por la violeta.

Y el paisaje indeleble, la viñeta
que el "sol de los venados" ilumina . . .
La tarde como una buena campesina
se bañaba cantando en la poceta.

Esa paz de los campos, florecida
al conjuro estelar del campanario,
dora aún mis saudades. Y la vida

—este milagro que alcanzando pierdo—
es ya sólo enclavar en el horario
la mariposa azul de su recuerdo,

OCTAVIO AMORTEGUI
(1901-)

Oroipen

Itzuliaren miña urrezko burdian,
eguzki-sarrerako itaite onduan . . .
Ernaragatik nuen zeru-gaiña laztan,
baratza liliaren zuk maite zenduan.

Ta alderdi ken-eziña, ta "orein-euzkiak"
argiz edertzen duen mastegi txikia . . .
Arratsa, lugin-andre onaren antzera,
putzuan ezkotzen zan poz-kantuz betia.

Soroen pake orrek, joale-dorreko
izarren sorgin-itzez loretan dagonak,
oindiño urrezten ditu nere bakar-miñak.

Ta bizitza —iritxiz galtzen dedan alatz—
ezta besterik aren oroi-inguma urdiña
orduarin jostea baizik, txit panpiña.

{*Euskeraz*: J. Onaindia'k)

JORGE ARTEL
(1909-)

La cumbia

Hay un llanto de gaitas
diluido en la noche.
Y la noche, metida en ron costeño,
bate sus alas frías
sobre la playa en penumbra.
que estremece el rumor de los vientos norteros.

Amalgama de sombras y de luces de esperma,
la cumbia frenética,
la diabólica cumbia,
pone a cabalgar su ritmo oscura
sobre las caderas ágiles
de las sensuales hembras,
Y la tierra,
como una axila cálida de negra,
su agrio vaho levanta, denso de temblor.
bajo los pies furiosos
que amasan golpes de tambor.

El humano anillo apretado
es un carrusel de carne y hueso,
confuso de gritos ebrios



LA CUMBIA
JORGE ARTEL

JORGE ARTEL
(1909-)

Kunbia

Gaita erosia bat da
gau-altzoan nasia.
Ta gabak, izertz-ronean sartua,
bere egal otzak astintzen dauz
illun nastu dagoan ondar gorrian,
ipar-aizeen zurmurra dardarazoz,

Itzal ta zeroizagien argizko nasmas d
kunbia ero suarrak,
deabruaren kunbiak,
bere igiera illuna
eme lizunkoien meaka bizkor gain
jarten dau txankarrikoz.
Eta lurrak,
beltz-galtzarpe bero antzera,
bafada minkotxa, dardar izor,
jaso-azten dau tanbor-zartak oretuz
dabiltzanen zango asarrekor pean.

Giza-ereztun ertsia
aragi-azurrezko karrusela dozu,
garrasi mozkor ta mariñel

y sudor de marineros,
de mujeres que huelen a la tibia brea del puerto,
al yodo fresco del mar
y al aire de los astilleros.

Se mueve como una sierpe
sonora de cascabeles,
al compás de los chasquidos
que las maracas alegres
salpican sobre las horas
desmelenadas de ruido.

Es un dragón enroscado
brotado de cien cabezas,
que muerde su propia cola
con sus fauces gigantescas.

¡Cumbia! ¡Danza negra, danza de mi tierra!
¡Toda una raza grita
en esos gestos eléctricos,
por la contorsionada pirueta
de los muslos epilépticos!

Trota una añoranza de selvas
y de hogueras encendidas,
que trae de los tiempos muertos
un coro de voces vivas.

Late un recuerdo aborígen,
una africana aspereza,
sobre el cuerpo curtido donde los tamborileros

izerditan naspildua,
portuko pike epeletan,
itxasoko yodo ozkirritan
ta ontzitegien aizetan
ixuri zundaz dagozan emakumeena.

Koskabillozko suge ozena iduri
zirkin ta zirkin dagie,
emagaldu alaiak
zaratotsaren ordu sapaztatuen gain
azkar dantzatzen dabean
firrinda zaplakoan neurrira.

Eun burutik sorturiko
erensuge kiribildua dozu,
bere autz erraldoiakaz
berbere buztanari ortzak ezarriz.


Kunbia! Beltz-irrada, ene lur-dantza!
Enda osoak irrintzi dagi
zimiztazko igikun orreitan,
aizekaldezko iztarren
artazi ta parista dardaritsuz!

Oian-miña dardaratzen da
ta sutzar irazekia,
joan alditik dakarrela
abots bizien talde zolia.

Jatorrizko gomutak dardar dagi,
aprikar itxaropen batek,
gorputz zaildu gaiñean;

—sonámbulos dioses nuevos que repican alegría-
aprendieron a hacer el trueno
con las manos nudosas,
todopoderosas para la algarabía.


¡Cumbia! Mis abuelos bailaron
la música sensual. Viejos vagabundos
que eran negros, terror de pendencieros
y de cumbiamberos
en otras cumbias lejanas
a la orilla del mar . . ,



tuntun-jotzailleak —poza ziztatzen
daben jaingo barri ameslariak— ementxe
ikasi eben trumoia egiten,
iskanbillarako altsu dituen
esku latz mazkarrakaz.

Kunbia! Nire aitaitek dantzatu eben
eres-ots likitsa. Ibilkari zar,
baltz ziranak, burrukan
ta kunbia-dantzarien izu,
urrutiko beste kunbia batzuetan,
itxasoaren ertz-egalean . . ,

[Euskeraz: J. Onaindia'k)



PORFIRIO BARBA JACOB
(1883-1942)

Canción de la vida profunda

*El hombre es cosa vana,
variable y ondeante.*
Montaigne,

Hay días en que somos tan móviles, tan móviles,
como las leves briznas al viento y al azar.
Tal vez bajo otro cielo la vida nos sonría.
La vida es clara, undívaga y abierta como el mar.

Y hay días en que somos tan fértiles, tan fértiles,
como en abril el campo, que tiembla de pasión;
bajo el influjo pródigo de espirituales lluvias,
el alma está brotando florestas de ilusión.

Y hay días en que somos tan plácidos, tan plácidos . . .
—¡niñez en el crepúsculo, lagunas de zafir!—
que un verso, un trino, un monte, un pájaro que cruza,
y hasta las propias penas nos hacen sonreír.

Y hay días en que somos tan sórdidos, tan sórdidos,
como la entraña oscura de oscuro pedernal;
la noche nos sorprende con sus profundas lámparas,
en rútilas monedas tasando el Bien y el Mal.

PORFIRIO BARBA JACOB
(1883-1942)

Bizitza sakonaren kanta

*Gizona gauz utsal, aldakor
eta zalantzaria dogu.*
Montaigne.

Aldakor, oso aldakor gara egun batzutan,
aizetara ta zer gerta samar ariñak edu.
Beste nunbaiten apika par dagisku biziak.
Algia da bizia, itxas antzera zabal uintsu.

Ta ekarkor, txit ekarkor gara beste batzutan,
jorraillean griñaz dardar dagian soroa lez;
gogo-eurizko eragin arduratsu azpian,
ametsezko lore diak gogoa dago ernez.

Ta bare, oso baretsu gabiltz alakoetan . . .
—aurtzaroa ortzargian, zapirrezko urmaelak!—
bertso batek, txio, mendi, egaz doan txoriak
ta bakoitzaren miñak be par-erazten dauskuenak

Ta satsuak, txit satsuak gara noizik beñean
sukarri illun goibelaren errai itsua iduri;
gabak bere dilindari sakonez artzen gaitu,
txanpon gorrietan Ona ta Txarra taiutuki.

Y hay días en qué somos tan lúbricos, tan lúbricos,
que nos depara en vano su carne la mujer:
tras de ceñir un talle y acariciar un seno,
la redondez de un fruto nos vuelve a estremecer.

Y hay días en que somos tan lúgubres, tan lúgubres,
como en las noches lúgubres el llanto del pinar.
El alma gime entonces bajo el dolor del mundo
y acaso ni Dios mismo nos pueda consolar.

Mas, ¡ay!, también, ¡oh Tierra!, un día ... un día ... un día . . .
en que levamos anclas para jamás volver . . .
Un día en que discurren vientos ineluctables.
¡Un día en que ya nadie nos puede detener!



Ta labankor, txit labankor gara beste batzutan,
ta andreak alperrik bere aragia damosku:
gerri bat ertsi ta bular bat limurtu ostan,
ale baten biribillak dardar erazten dausku.

Eta itzaltsu, oso itzaltsu gara inoiz edo barriz,
lerdiaren erosta gau baltz-illunetan lez.
Arimak ordun intzira dagi mundu-lor pean,
ta Jainkoak berak ezin ausaz gu ipiñi pozez.

Baiña, ai!, egun batez ... o Lur!, baita egun batean ...
inoiz ez biurtzeko ankillak jaso egunez ... ,
Ezin-besteko aizeak puzka dabiltzanean.
Inok geldi-azo ezin gaikazan egun batez!

(Euskeraz: J. Onaindia'k)

JUAN JOSE BOTERO

Quiero ser gato

"Me dijo, escucha, sabe que quiero darte una prueba de mi bondad."

G. G. G.

Si Dios dijera:
"Ven acá, Juancho,
dime qué quieres.
Quieres acaso
ser mucha cosa
o no ser algo?
Quieres ser bueno,
quieres ser malo,
ser un demonio
o ser un santo?
Quieres ser rico,
quieres ser sabio
o ser un necio
de largo a largo,
sin luz de genio,
sin un centavo?
Quieres ser ave,
águila o gallo,
jilguero, mirla,
torcaz o pato,

JUAN JOSE BOTERO

Katua izan nai dot

*"Adi, esan eustan, neure ontasunaren agiri
bat emon nai dautzut."*

G. G. G.

Jainkoak ba'liñost:
"Ator ona, Juantxo,
esaik zer nai dokan.
Nai dok bear bada
gauza aundia izan
edo ezer ez izan?
Ona izan gura dok,
deabru gaiztoa
ala donea izan?
Aberats gura dok,
jakituna nai dok,
ala zearoan
iñoso mekoa,
asma argi bagarik,
txanpon izpi bage?
Egazti izan nai dok,
arrano ala oillar,
karnaba, zoz-eme,
paita ala basuso,
sugelindara bat,

un lagartijo,
un feo sapo,
o algún cuadrúpedo
como el caballo?
Quieres ser perro,
quieres ser asno,
quieres ser tigre,
quieres ser gato?"

"¡Oh Dios del cielo,
Dios bueno y santo!
—le interrumpiera
entusiasmado—,
si acaso quieres
servirme en algo,
si de este pobre
te has acordado,
yo quiero hablarte
claro, muy claro:
ser lo que he sido
no es de mi agrado;
el hombre pasa
tantos trabajos
en este valle
de duelo y llanto.
Si uno es pequeño,
lo anclan pisando;
y es un estorbo,
si acaso es alto;
si es uno pobre,
malo, muy malo;
y si uno es rico,

txantxiku itsusia,
lau-oiñekoren bat,
zaldia otean?
Txakur izan nai dok,
astoa izan nai dok,
katamotz agiaz
katua naskiro?"

"O zeruko Jainko,
Jainko on eta deuna!
—ebaiko neuskio
zoramen beroaz—,
zerbait bear bada
urgatz nai ba'nozu,
aul zirtzil onetaz
gomutau ba'zara,
nik argi itz egin
nai dautzut, txit argi:
nazana izatea
ez yat atsegiña;
gizonak baititu
ainbat neke ta lor
negar-naigabezko
lur ontan jasoten.
Iñor txiki ba'da,
oinpe darabille;
ta zoztor bat dozu,
tantai baldin ba'da;
iñor txiro ba'da,
txarra, oso txarra;
ta eukitsu ba'da,

todo es cuidado;
si feo, "ellas"
no le hacen caso;
y si bonito,
de una es esclavo;
si con las hembras
nos deslindamos,
qué desazones
las que pasamos;
mas si sucede
todo al contrario,
y uno con ellas
se enreda, ¡diablos!
En fin, los hombres
sufrimos tanto
que en esta vida
todo es trabajos . . .
¡Dios poderoso!
¡Dios bueno y santo!,
yo le dijera
con mucho acato:
si acaso piensas
servirme en algo,
si aliviar quieres
al pobre Juancho
dándole un día
algún descanso,
no me hagas necio
ni me hagas sabio,
pobre ni rico,
bueno ni malo,
bonito, feo,

guztia da ardura;
motza ba'da, "eurak"
ez dagitse kasu;
ta lerdena ba'da,
bateren jopua;
emakumeengandik
esitzen ba'gara,
guk bai naigabea
biotzean lakar;
baiña itzultara
gertatu ezkeroz
ta norbait eurekaz
nastu, tximist gorri!
Itz batez, gizonok
amaika ikus bear,
bizitza onetan
oro baita neke . . .
Jainko alguztidun!
Jainko on eta deuna!
esango neuskizu
begirune aundiz:
zerbaiten apika
urgatz nai ba'nozu,
piztu nai ba'dozu
Juantxo gaixoa
atseden apur bat
noizik bein emonez,
ez naizu ergel ein,
ezta jakitun be,
ez txiro ez jori,
ez ona ez txarra,
ez lerden, ez motza,

corto ni largo,
fiero demonio
ni humilde santo.
Sí, no me vuelvas
águila o gallo,
jilguero, mirla,
torcaz o pato,
ni lagartijo
ni feo sapo,
ni tan cuadrúpedo
como el caballo.
¿Sabes, Dios mío,
por lo que clamo?
Oye y perdona
mi desacato:
sin que lo tomes
a gran pecado,
sin yo sentirlo,
sin saber cuándo,
así . . . , de pronto,
vuélveme gato . . .
Gato ser quiero,
pero no "gato"
de dos patitas
y de dos manos;
gato de pelo,
de uñas y rabo,
de cuatro patas
y que haga "miau".
Quiero ser libre,
no ser esclavo,
vivir durmiendo

ez labur ez luze,
ez deabru anker,
ezta santu apal.
Bai, ez nagizu itzul
arrano ez oillar,
karnaba, zoz-eme,
basuso ez paita,
ez sugelindara,
ez txantxiku itsusi,
ez ain lau-oiñeko
zaldia bezela.
Ba-dakizu, Jainko,
zeren zain naukazun?
Entzun eta asketsi
nire lotsa eza:
pekatu aunditzat
zuk, oi!, artu bage,
neu oartu barik,
noiz ez dakidala,
onantxe . . ., bertatik,
katu itzul nagizu . . .
katua izan nai dot;
baiña ez oiñ biko
t'esku biko diran
"katu" atariko;
uledun katua,
erpa-buztanduna,
lau anka dituna,
"miau" dagiana.
Azke izan gura dot,
ez iñoren jopu,
teillatu ganetan

en los tejados
andando solo,
siempre robando.
Sin afanarme
por el mercado,
ni por chaquetas,
ni por calzados,
ni por muchachas,
ni por muchachos,
ni por Cristico,
ni por el diablo;
entrando a solas
y paso a paso
en las cocinas
donde hay guisados,
y en los festines,
y en los saraos,
comiendo todo
lo de mi agrado . . .
De día durmiendo,
de noche andando
por los canceles
y por los zarzos
y en las despensas
que es un encanto,
buenos chorizos,
quesos curados,
jamones, lenguas,
siempre tragando.
Luego de jira
salir al campo,
y si deseo

lo egiñik bizi,
bakarrik ibilki,
beti lapurretan.
Iñoiz axol gabe
azoka arazoz,
ez jake-axolik,
ez oiñetakoetik,
ez neskatiñakaz,
ez mutikoakaz,
ez kristo txikiak,
ez txerren aundiaz;
soil ta ixil sartuaz
astiro ta baratx
aragi-saltsazko
sukalde barruan,
t'orrits-tokietan,
ta gau-billeretan,
eder yatanetik
guztia janikan...
Egunez lo nasai,
gau aldera barriz
atez errondan,
koltzaetan zear
ta kutun dodazan
jan-gordaillu barna,
lukainka ederrak,
gaztae onduak,
iztarkiak, miiñak,
nainoz iruntsirik.
Gero oian-burduntziz
zelaira urtenda,
txorikiko gale

me da de pájaros,
comerme uno,
dos, tres o cuatro,
volviendo alegre
a mis tejados,
donde el sol quiebra
sus tibios rayos,
y allí, al sonido
de un dulce piano,
echando al cuello
mi fino rabo,
sin la zozobra
que afloja el ánimo,
irme tendiendo
de largo a largo,
tan perezoso,
tan descuidado
de las miserias
de un mundo vano".

¿Y habrá quien goce
como los gatos?
¿Y habrá quien viva
tan descansado?
¿Y habrá quien coma
tan sin trabajo?
¿Y habrá quien duerma
tan sin cuidados? . . .
Si ésta no es vida,
mejor no la hallo.
¡Oh Dios del cielo!
Dios bueno y santo,

ta nairikan ba'dot,
gozoro jan bat, bi,
iru naiz geiago
t'euzkiak bere izpi
leunak austen ditun
teillatu neurera
pozik biurtuaz,
ta an, loreskin baten
soiñu-ots bizitan,
neure buztan soilla
lepora jaurtiaz,
barru kezkatzen daun
ezbai larri bage,
luze naz etzango,
nasai zearoan,
ain nagi ta baldar,
mundu utsal ontako
ezbear-naigabez
ain axola gabe".

Nok gozartu daike
katuak aiña?
Ta nor bizi daike
opor ain gozotan?
Eta nok jan daike
orren lan gitxigaz?
Ta nok lo ein daike
ain arreta ezik? . ..
Au bizi ez ba'da,
ez daurkit oberik.
O zeruko Jainko!
Jainko on eta deuna,

si acaso piensas
servirme en algo,
si aliviar quieres
a este tu Juancho,
ahora mismo
¡vuélveme gato!

W ->

zerbaiten apika
urgatz nai ba'nozu,
zeure Juantxo au
biztu nai ba'dozu,
oraintxe otsean
katu biur naizu!

[Euskeraz: J. Onaindia'k)

JOSE EUSEBIO CARO
(1817-1850)

En alta mar

¡Céfiro!, ¡rápido lánzate!, ¡rápido empújame y vivo!
Más redondas mis velas pon: del proscrito a los lados,
¡Haz que tus silbos susurren dulces y dulces suspiren!
¡Haz que pronto del patrio suelo se aleje mi barco!

¡Mar eterno!, ¡por fin te miro, te oigo, te tengo!
¡Antes de verte hoy, te había ya adivinado!
¡Hoy en torno mío tu cerco por fin desenvuelves!
¡Cerco fatal!, ¡maravilla en que centro siempre yo hago!

¡Ah!, ¡que esta gran maravilla conmigo forma armonía!
Yo, proscrito, prófugo, pobre, infeliz, desterrado,
Lejos voy a morir del caro techo paterno,
¡Lejos, ¡ay!, de aquellas prendas que amé, que me amaron!

Tanto infortunio sólo debe llorarse en tu seno;
Quien de su amor arrancado y de patria y hogar y de hermanos
Solo en el mundo se mira, debe primero que muera,
¡Darte su adiós!, ¡y por última vez contemplarte, Océano!

JOSE EUSEBIO CARO
(1817-1850)

Itxaso zabalean

¡Aizeño!, ¡zabiltz azkarra!, ¡bultz naizu bizkor ta bizi!
Jar eunak biribillago: jaurtiaren bira-itzuli,
Bebiltz gozo zure txistu zurmur-otsak, bebiltz ezti!
Urrunaz eizu beingoan sor-lekutik ene ontzi!

Ur betikor!, so dagitzut azkenez, entzun ta euki!
Gaur ikusi baiño len be, usna zindudan jadanik!
Biran azkenez edatzen daustazu zeure lot-esi!
Adur-esi!, arrigarri erdia neuk beti eiñik!

Ai!, arrigarri guren onek neugaz dagi alkartze estu!
Ni, arrotz, igesti, txiro, zorige ta erbestetu,
Urruti noake iltera aiten suete maitetik,
Urrun, ai!, maite izan nitun ta ninduen areingandik!

Zugan soil negartu daiket zoritxar ainbestekua;
Maite, aberri, suete ta anairik bage, soildua,
Munduan bakar dagonak iltera baiño lenago,
Zu agurtu bear zaitu, zuri so egin, Itxaso!

Yo por la tarde así, y en pie de mi nave en la popa.,
¡Alzo los ojos —miro—, sólo tú y el espacio!
Miro al sol, que, rojo, ya medio hundido en tus aguas,
¡Tiende, rozando tus crespadas olas, el último rayo!

Y *un* pensamiento de luz entonces llena mi mente:
Pienso que tú, tan largo y tan ancho, y tan hondo y tan vasto,
Eres con toda tu mole, tus playas, tu inmenso horizonte,
¡Sólo una gota de agua, que rueda de Dios en la mano!

Luego, cuando en hosca noche, al son de la lluvia,
Poco a poco me voy durmiendo, en mi patria pensando,
Sueño correr en el campo do niño corrí tantas veces,
Ver a mi madre que llora a su hijo; lanzarme a sus brazos . . .

¡Y oigo junto entonces bramar tu voz incesante!
Oigo bramar tu voz, de muerte vago presagio;
¡Oigo las lonas que crujen, siento el barco que vuela!
¡Dejo entonces mis dulces sueños y a morir me preparo!

¡Oh! ¡Morir en el mar! Morir terrible y solemne,
Digno del hombre. ¡Por tumba el abismo, el cielo por palio!
¡Nadie que sepa dónde nuestro cadáver se halla!
¡Que echa encima el mar sus olas, y el tiempo sus años!

X

Nik arratsez olan, neure ontziaren txopan zutik,
Begiak jasoz so dagit, zu ta usgunea bakarrik!
Euzkia so zure uretan, gorri, erdi pulunpa,
Zure uin-izurrak ikutuz, azken-izpiak jaurtika!

Eta argizko gogai batek daust ordun barnea asetzen:
Zu orren luze ta zabal, orren sakona ta garden,
Uste dot zaraia zeure mukulu, osertz, ondartza,
Ur-tantatxo bat soil-soilki, Jainko eskuan iraulka!

Gero, gau latz zurbillean, euriaren ardail-doiñuz,
Apurka loak artzean, neure lurraz gogoratuz,
Ume nintzala sarri lez zelai zear nabilela
Ames dagit negar dagistan ama-besotan murgila . . .

Ur samar dantzut orduan zure orro tai gabea!
Oiuz dantzut zure deia, eriotz-zantzuz asea;
Eunen garrasia dantzut, t'ontzia doakit egaz!
Ortan, ames leuna itxirik, ilteko gertatuten naz!

Oi!, itxas gaiñean il! Ilte geigarri baizen gurena,
Gizonantzat duiña. Leiza illobi, goia estalki!
Gure illotza nun dagoan iñortxok bere ez daki!
Itxasoak uiña ari gaintzen, ta aldiak urte-andana!

(Euskeraz: J. Onaindia'k)



EDUARDO CARRANZA
(1913-)

Soneto a Teresa

Teresa, en cuya frente el cielo empieza
como el aroma en la sien de la flor;
Teresa, la del suave desamor
y el arroyuelo azul en la cabeza.

Teresa, en espiral de ligereza,
y uva, y rosa, y trigo surtidor:
tu cuerpo es todo el río del amor
que nunca acaba de pasar, Teresa.

Niña por quien el día se levanta,
por quien la noche se levanta y canta
en pie sobre los sueños, su canción.

Teresa, en fin, por quien ausente vivo,
por quien con mano enamorada escribo,
por quien de nuevo existe el corazón.

EDUARDO CARRANZA
(1913-)

Amalaukoa Terese'ri

Terese, ortze iturria don bekokian
liliak mintzetik lez usaiñan sortzea;
Terese, maite igeskor eztian jabea
ta lats urdiña dirdir daukana uledian.

Terese, kiribillez aiz lirain goitian,
ta mats, ta arkakarats ta garien zirriztea:
ire soiña maitasunezko errekea
amaigaitza joana, Terese, urandian.

Igaitik don, neskatil, eguna jagiten,
gaua bere atzarri jartzen yan abesten,
zutunik amesen gain, izar eresia,

Terese, orra zelan erage nagoken,
ta esku maiteminduz lotu non idazten;
biotz au be darabin berbiztu barria.

(Euskeraz: Jon Beistegi'k)

Vago soneto

Es la mano del humo la que escribe
el epitafio de esta bella tarde.
Y es el rostro del humo el que sonr e
como quien llega de un hermoso viaje.

La luna se anticipa en los jazmines,
Como un aroma se evapora el valle.
Y entre los dedos de la lejan a
es la rosa del humo la que se abre.

Es la boca del humo la que calla.
Y es la frente del humo la que sue a
para mis ojos este vago mundo.

En su rama el primer lucero canta.
S lo se oye fluir sobre la tierra
mi coraz n que sube como el humo.

Amalauko lausotsua

Keearen eskua dok idazten dabena
arrats polit onetzaz olerki illarritza.
Keeak yok arpegian zabalik erkaitza
bidaldi ederretik letorkenarena.

Ibarrak yok lurrun lez ar usaiñan sena.
Aurrez dabik illargi piztu-nai urkitza.
Ta urriñaren atzetan, egunan elbitza,
keezko arkakaratsa zeazten dabena.

Isil-isilik yagok keearen aoa.
Ta nere begientzat ludian lausoa
keearen bekokiak ames egin yeustak.

Artizarra gosa dok abesten leloa.
Lurrez ozen bakarrik biotz jarioa
neure au keeak berak jaso ba'laieustak.

(*Euskeraz: Jon Beistegi*'k)

Placer de amor

(Tristán Klingsor)

Placer de amor sólo un instante dura:
la rosa que te diera esta mañana
la bella mano de una joven pura,
en la tarde verá su gracia vana
caída como tenue vestidura.
Placer de amor sólo un instante dura,
y deja sólo una visión lontana.

Placer de amor sólo un instante dura,
óyelo bien, muchacha tan ufana,
que has hecho de tu frágil hermosura
que hoy es y no ha de aparecer mañana
cárcel de tus galanes sin ventura:
tan sólo deja una memoria vana,
placer de amor y un sólo instante dura.
¡Y la pena de amor tampoco dura!

Maitasun irritsak igeskor atsa:
neska garbiaren esku ederrak
goizean damotzun arkakaratza
auldu dau arratsez itxura alperrak
erantzi ba'leu lez jantzi meatza.
Maitasun irritsak labur bidatza,
ta ondore bakar sogai oierrak.

Maitasun irritsa beti garratza,
entzun bei neskatil arro mukerrak,
egin clon ba eure galkor baratza
—gaur lili mardoak, biar landerrak—
auzpez daukazanen espetxe latza:
ta ondore bakar oroitza alperrak,
maitasun irritsa doa berantza.
Maite-nekeak be labur ondatza!

{*Euskeraz*: Jon Beistegi'k)

CARLOS CASTRO SAAVEDRA
(1924-)

Plegaria desde América

(Premio Internacional de la

Me llamo Carlos, soy nuevo, soy de América,
vivo en el sur de América con un hijo reciente,
mis pies son claros y anchos como la madrugada,
mi rostro es matinal, todo mi cuerpo es verde,
sobre mi pecho pastan búfalos y caballos
y el sol abre amapolas con su mano caliente.

Creo en el pescador, en sus pescados y en sus redes;
me gusta ver un pueblo estrenando palomas,
siempre espero una carta con noticias del mundo,
espero el pan, la paz, el amor, los manteles
y pienso que el futuro va a llegar en los trenes;
defiendo mi esperanza, amo mi juventud,
pongo un beso en la puerta de mi casa,
lo pongo con amor de centinela,
después me voy, me voy de bala en bala,
de granada en granada deshojando la guerra.

¿Quién que tenga mi edad no me acompaña,
quién con mis dulces años no me sigue,
quién que vea brotar espigas de su pecho



PLEGARIA DESDE AMERICA
CARLOS CASTRO SAAVEDRA

CARLOS CASTRO SAAVEDRA
(1924-)

Amerika'tik eskaria

(Laterri-arteko Bake-saria irabazi eban)

Karla dot izena, barria naz eta amerikarra,
Ego-Amerika'n bizi naz seme gazte batekin;
nire oiñak argi zabalak dira egun-astea lez,
goiztar da nire arpegia, musker nire gorputza,
neure bular gain bazkatzen dira basidi ta zaldi
ta euzkiak bere esku beroz mitxoletak edatzen.

Ustea ba-dot arrantzalean, aren arrain ta saretan;
atsegin yat usoak adelatzen erri bat ikustea,
idazki bat ditxarot beti munduko izparrakaz,
ogia ditxarot, bakea, maitasuna, zamaauak
eta geroa bultzietan datorkelakoan nago;
neure itxaro aldez dagit, maite dot gaztaroa,
mosu bat dipint neure etxeko ate gaiñean,
gau-jagolearen maitasunez ipinten dot ipiñi;
gero ba-noa, berunpillez berunpil ba-noa,
granadaz granada noa, gudua or-emen orriulduz.

Nok nire adiña izanik ez daust lagunduko,
nor nire urte bigunakaz ez datorkekit ondoren,
nor bere bularretik buru-begiak sortzen ikusiz

no se pone del lado de su espigada juventud?
¿Quién en Colombia, en mi país dorado,
quién en cualquier país agricultor,
quién en toda la América, en sus mares,
quién en toda la tierra, en la espaciosa tierra,
no defiende las vidas que recién amanecen
y le arranca las muertes a la guerra?

Yo sé que somos muchos, que somos casi todos,
somos millones de hombres y de pájaros,
millones de mujeres y de auroras,
somos una familia mundial de resplandores
y no hay un solo hermano que quiera ser soldado
ni hay un solo soldado
que quiera disparar sobre las flores.

El carpintero de veinte años se niega a fabricar
culatas y armamentos,
y su hermano que vende manzanas en la calle
prefiere hablar de frutas que conversar de muertos.
El joven del taller y el muchacho del trigo
se niegan a marchar con un tambor de fuego,
y el uno se defiende con chispas de su fragua
y el otro con espigas y explosiones del suelo.
Jóvenes labradores y jóvenes canteros
construyen una casa de bueyes y de piedras
y se niegan a abrirla cuando pasa la guerra
y llama a las ventanas y a las puertas.

¡Oh!, juventud, aroma de altos cedros,
perfume de entusiastas geologías vivas.

ezta jarriko bere gaztaro Jorailaren aldetik?
Nok Kolonbia'n, neure lurralde urreztatu ontan,
nok nekazaritza maite dauan edozein eskualdetan.
nok Amerika oso-osoa, bertoko itxas-bazterretan,
nok lur zabal guztian, ludi biribil edatuan,
ez ditu jagoten sor-barri dagozan bizitzak
guduari eriotzak indar-indarka kendurik?

Asko gareala ba-dakit, ia geienok gareala,
txori eta gizon milloika askuak gareala,
milloika emakumak eta egunsenti dirdaitsuak,
dizdiz-erlantzezko ludi-sendi bat gareala
ta eztago anai bat gudari izan nai daunik,
eztago gudari bat bakarrik,
lore gain erauziz, su egin nai daunik.

Ogei urte ditun arotzak eztau egin gura
ez zizpa-ondorik ez guda-iskillurik
eta kalean sagar-saltzen dabillen anaiak
igaliz itz-egin naiago dau illetaz baiño.
Lantegiko gazteak eta galsoroko mutillak
suzko arratz batekin eztabe joan gura,
ta bata bere sute giko txingarrez zaindu oi da
ta bestea galburuakaz ta azpiko iztandakaz.
Lugin gazteak eta argin urte gitxi koak
idiz ta arriz etxe bat antolatu dabe
ta gudua, leio-ateetara deadar-ots egiñik,
andik igarotean, eztabe iñolaz edegi gura.

O!, gaztaro, eretz garaien usainki gozo,
ludizti bizi, buru-bero ta suarren atson.

¡Oh!, juventud, océano de soles, mar de cantos,
rumorosa y profunda madera de guitarras,
piel numerosa y fértil contra las bayonetas,
piel fuerte que florece en donde te desgarras.

Allí donde la carne se abrió, donde la carne
recibió mordiscos de la pólvora,
ha brotado una flor dura y cicatrizada,
y aquellos que volvieron, los muchachos
que volvieron ayer de las trincheras
se tocan esa flor y se prometen
golpear con ella el odio
hasta que desplomen las espadas
entre un clamor de orquídeas y metales.

Todos están en pie, todos estamos
de pie junto a los niños fornidos que tenemos
y como leñadores trabajamos
y con una corteza de amor nos defendemos.

En la China, el muchacho que cultiva el arroz
y esparce por el campo su carga de semilla,
devuelve los cañones a medida que avanza
envuelto en el relámpago de su carne amarilla.

El joven de Alemania reconstruye sus cúpulas,
azota sobre el Rhin su camisa de sangre,
y siente que en sus manos retoña la blancura
como si la camisa se volviera más grande.

El negro de Abisinia, el nocturno mancebo
que rompe la envoltura de la noche africana,

O!, gaztaro, eguzki-itxas, kantuzko oxin,
kitarren egur marmaratsu ta ondokoia,
marrautzen aurkako narru ugari ta ekarkor,
urratugaitik loratzen zarean narru sendoa.

An, aragia edegi zan tokian, sut-autsaren
ainkadak aragiak artu ebazan leku atan,
sortazi da lore bat gogor ta azalotua,
eta biurtu ziranak, lubaganetatik atzo
etxera itzuli ziran mutil gazte areik,
lora ori burukotu dabe, beronegaz asarrea
zartatuko dabela zin dagie ben-benik,
orkibedar ta burdin-iskanbil artean
ezpaiak beia jo ta erroizturik itxi arte.

Zutik dagoz guztiak, zutik gagoz guztiok
daukaguzan ume giar sendokoteen alboan,
eta egurkarien antzera lan egiten dogu
ta maitasunezko azal-koskol bategaz jagoten.

Txina'n, arrotz-sailla landu ta azi-sorta
alor landuan barraiatzen daun mutil gazteak,
bere aragi onaren irestu-bristadan bilcluta,
aurrera egin-ala atzera itzultzen ditu kañoiak.

Alemaniko gazteak goipularriak ber-jaso daroaz
Rin gaiñean astintzen daula bere odol-alkondarea,
eta, alkondarea aundiago egingo ba'litzakio lez,
bere eskuetan zурitasuna erne-barritzen yakola uste.

Abisini'ko baltzak, aprikar gauaren estalkia
apurtu oi dauan gizongai gau-zale gordiñak,

ignora que en sus dedos va a florecer el mundo
y que en sus dientes lleva sonriente la mañana.
Muchachos argentinos se dan cita en la Pampa,
jóvenes bolibianos se juntan en las minas,
y levantan la frente del pasto dei estaño
y la llenan de noble sudor de golondrinas.

En bandadas los hijos menores de las patrias
vuelan de patria en patria y apagan la candela
que el pastor descuidado deja entre sus rebaños
y que la oveja negra propaga por la tierra.

Hasta el viejo que tiene una mulata joven
defiende el porvenir, guarda el campo sembrado,
y les dice a sus nietos que su barba madura
es mucho más hermosa que un cerezo incendiado.

¡Ninguno se abandone ni se quede
abandonado en medio de su frente,
acudan todos a escoltar la vida
y a quitarle las armas a la muerte!
Acudan de la India, de sus ríos sagrados;
acudan de los ríos musicales de Italia,
a inundar los caminos que Dios puso en la tierra
con el pie florecido en la joven sandalia.
Acudan a mi casa de América, a mi casa,
a decir con mi lengua mundial esta plegaria:

"Señor, queremos paz sobre los montes,
y paz sobre los ríos y los mares, Señor;
pacíficas estrellas en el cielo
y en los ojos del buey rosas pacíficas;

bere atzetan ludia loratuko danik ez daki,
ezta bere agiñetan goiza daroanik be, irri-jario.

Argentinarrak mutillak zabaldian batzen dira,
bolibiar gazteak meatz-obieta dabez batzarrak,
eta, eztaiñu-alapidetik bekokia jaso-azirik,
elaien izerdi-pats leiñargiz beteten dabe.

Alkarren leian aberrietako seme txikienak
aberriz aberri doaz eta artzaiñak arreta bage
bere artaldean artean itxi ta ardi baltzak
lurrean zabaldu dauan tortxo itzaltzen dabe.

Euskarri gaztea daukan agure zarrak be
geroa zaintzen dau, ereindako soloa jagonik,
eta illobai diñotse bere bizar umotua
keriz-orpo ixetu bat baiño ederrago dala.

Ez bei iñor atzera gelditu, ez bei iñor
itxirik gelditu bere guda-oiñ erdian;
beto guztiak bizitzearen zain-gudari,
eriotzan iskilluak eskutik kendu-bearrez!
Beto India'tik, ango ibai sagaratuetatik;
beto Itali'ko ibai ereskidetsuetatik,
Jainkoak lurrean ipiñi bideak betetzera
oiñetako gaztean loratu diran orpoakin.
Beto Amerika'ko etxera, neure etxera,
neure luditar izkeraz eskari au esatera:

"Bakea nai dogu Jauna, mendi gaiñetan,
ta bakea, Jauna, erreka ta itxaso gaiñetan;
izar baketsuak zeru-azpi oztiñean,
eta larrosa baketsuak idiaren begietan;

mansedumbre en el pecho de los hombres
y en el de las mujeres mansedumbre;
silencio para el sueño de los muertos
y para el de los vivos más silencio;
amor bajo la piel de las naciones
y encima de la piel cicatrices de amor;
congregantes campanas en los pueblos
y en las aldeas domingos congregantes;
una paloma al pie de Norteamérica
y en los hombros de Rusia otra paloma;
una sola bandera en los armarios
y en los días festivos una sola;
pan en la mesa de los panaderos
y en la mesa de todos vino y pan;
libertad para amar, para creer
y para hacer la vida libertad:
y en las fábricas pájaros y música;
pinturas en los muros y en las piedras
y en los libros poemas y pinturas:
alegría muscular en los estadios
y en las camisas verdes alegría;
esperanza sin sombra por la noche
y por el día andamios y esperanzas;
misericordia para los vencidos
y para el vencedor misericordia;
piedad, justicia y besos para todos,
y para todos madre y más piedad;
por un rifle un millón de tulipanes
y por cada soldado otro millón;
sinfonías a cambio de batallas
y a cambio de explosiones sinfonías:

gizasemeen biotz barru samurtasun ezia
 ta emakumeen biotzetan beraztasun ezia;
 ildakoen loarentzako ixil barne-sakona
 ta oraindik ixil geiago bizientzako;
 maitasun beroa aberrien narru azpian
 eta narru gain maitasunezko zauri-zaporrak;
 alkar batzen daben kanpaiak erri-torreetan
 eta auzotegietan igande jentez beteak;
 uso zuri-zuri bat Ipar-Amerika'ren oiñetan
 eta Errusi'ren bizkarretan beste zuri bat;
 ikurrin bat bera arasa-txelairuetan
 eta jai-egunetan be bat bakarra;
 okiñen mai gaiñetan ogia ugari
 ta guztion maietan ogia ta ardaoa;
 maite izateko askatasuna, siñistuteko
 ta bizia aurrera eroateko askatasuna;
 langillearen belarrietan musikea
 ta txoriak eta musikea lantegietan;
 orma ta arrietan margo-laukiak
 ta idaztietan olerki ta margo-laukiak;
 giar-poztasun betea jolas-tokietan
 eta alkondara orlegietan be poztasuna;
 itzalik bagako itxaropena gau aldian
 eta egunez aldamiñoak eta itxarokizunak;
 errukia oso gudan goituak izan diranentzat
 eta garaille urtendakoentzat be errukia;
 kupida, zuzentasuna ta mosuak guztientzat,
 eta guztientzat ama ta kupida are geiago;
 zizpa bategaitik milloi bat julufrei
 ta gudari baktxegaitik beste milloi bat;
 burrukaldien ordezes-ots andana ugari
 ta ler-iztandaen ordezes-ots andanak;

coraje entre las manos juveniles
y entre los corazones más coraje;
fuerza para creer en el futuro
y para perdurar mucha más fuerza;
paz hasta que se arruguen los cuchillos
y hasta que caiga el odio paz y paz;
paz en el alma, paz en la mirada.
¡y paz, mil veces paz!"



kemena ta adorea gazteen esku artean
eta kemen ta adore geiago biotz arteetan;
indarra etorkizunean uste ona izateko
ta ortan irauteko askoz be indar geiago;
bakea aiztoak tximur-azalez jantzi arteño
ta bakea ta bakea ezin-ikusia jausi artean;
bakea arima barruan, bakea begirakunean.
bakea, milla bider bakea!"

(Euskeraz: J. Onaindia'k)



EDUARDO CASTILLO
(1889-1938)

Al oído

María, señora de mis pensamientos
que añoras y sueñas en tierra lejana
en las tardes límpidas, tras de tu ventana,
como las princesas tristes de los cuentos. . .

Si ya no te acuerdas de que me quisiste,
si por mí no rezan tus labios, María,
ni se nubla en llanto tu mirada triste
aterciopelada de melancolía.

Acaso estos versos ingénuos —¿quién sabe!—
irán a buscarte llorosos de olvido
como una tonada muy vieja y muy suave
que ni recordamos donde hemos oído;

como esos perfumes volubles, ligeros,
como esas fragancias ya casi extinguidas
que entre las redomas de los esencieros
evocan ternezas desaparecidas,

EDUARDO CASTILLO
(1889-1938)

Belarrira

Miren, zu zaukadaz gogaion jabea,
erbestean itun, arrats garbietan
maite kondairan lez andera atsegea
leioan ostetik muxin amesetan,

Ez ba'zara oroi ninduzula maite,
ez nitzaz otoitzik, Miren, zure ezpanak,
ez malko lausorik illuntzen begite
guperak artuta samurtsu, laztanak.

Olerki bakun au agian —nok leki!—
oroige negarrez zugana doake
lelo zar-zar bat lez bigunez emeki
nun sortu ete zan aaztu be ba'yake;

Arako lurringai aldakor, ariñak,
edo ekandu-urrin igeskorak antzo
usaingilleen txolet artean diranak
maite-samurketa ostenduen zantzo.

(*Euskeraz:* Jon

A un pastor de almas

(Para el Padre Almanza.)

Como el doctor seráfico que en celestial arrobo
en su himno al "Frate Sole" le dijo hermano al lobo
de Gubbio, hermano al fuego y hermanas a las rosas
y comprendió su íntima hermandad con las cosas,
lo mismo tú, mi santo, que hechizas a tu aprisco
con fácil y alegre santidad de Francisco,
podrías con tus pláticas ingenuas y tus preces
catequizar las aves y adoctrinar los peces,
y renovar las suaves e ingenuas maravillas
que en páginas de oro narran las "Floreillas".

Tu Cristo no es el Cristo de faz triste y severa
que azotó a los cambistas y marchitó la higuera,
sino el Maestro lleno de caridad que dijo
al mundo la celeste parábola del "Hijo
Pródigo" y la parábola del "Buen Samaritano".
que acarició a los niños con amorosa mano,
y que ante gentes limpias de orgullo y de cizaña
dijo el inolvidable "Sermón de la Montaña".

Por eso y por tu alma cándida de paloma,
por tu sotana vieja que exhala un grato aroma
de unción, por tus cabellos más albos que el armiño,
y porque por la vida pasas haciendo el bien,
eres un limpio espejo dé Jesucristo. Amén.

Serapindar irakasleak lez donoki senean
bere "Frate Sole" ereserkian anaitzat artzean
Gubbi'ko otsoa, ta anaitzat sua, ta arrebak lilitzan
ta ulertu anaitasun sakona eukala izakitzan,
bardin zuk artaldea, ene deun, zorabiatuaz
Pantzeska'ren deuntasun oparo ta alaitsuenagaz.
zure itzaldi zintzoz ta otoitzaz daikezuz ziñetsi
anaikor egaztiak ta arraiñak maitez irakatsi,
ta urrezko orrietan "Loretxuak" edesten dagizan
mirari ikusgarri, eztitsu ta bakunak ber-izan.

Ezta zure Kisto arpegi illun ta itzaldun Kistoa
saltzailleak zigor euzana, ta igartu pikoa,
Irakasle maitatsua baiño, ta esan euskuna
"Seme Zarrastela"-ren alegi zerutar biguna,
baita "Samariatar Ona"-ren irudi indartsua,
ta aurrak maitati igurzten ekian Urtzi'ren eskua,
ta arrokeriz ta irakaz garbia zan errian gana
"Mendi'ko Itzaldi" aaztu eziña deadar euana.

Ori, ta zure gogoa zuriz dalako usoa,
jantzi zar orregaitik, igurtza lurriñez gozoa,
zure mototsagaitik, edurra lez zuriagoa,
ta on egiten zabiltzalako urkoari emen,
Josu-Kisto'ren antzikur aratz garbia zu. Amen.

[Euskeraz: Jon Beistegi'k]

JULIO FLOREZ
(1867-1923.)

Tus ojos

Ojos indefinibles, ojos grandes,
corno el cielo y el mar hondos y puros,
ojos como las selvas de los Andes:
misteriosos, fantásticos y oscuros. . .

Ojos, en cuyas místicas ojeras
se ve el rastro de incógnitos pesares,
cual se ve en la aridez de las riberas
la huella de las ondas de los mares.

Miradme con amor, eternamente,
ojos de melancólicas pupilas,
ojos que semejáis, bajo su frente,
pozos de aguas profundas y tranquilas.

Miradme con amor, ojos divinos
que adornais corno soles su cabeza,
y encima de sus labios purpurinos
parecéis dos abismos de tristeza.

Miradme con amor, fúlgidos ojos,
y cuando muera yo, que os amo tanto,
verted sobre mis lívidos despojos
el dulce manantial de vuestro llanto.

JULIO FLOREZ
(1867-1923)

Zure begiak

Begi igartezin, begi aundiok,
itxas-ortzeak lez sakon ta aratzak,
Andes'etako oian, bardin begiok:
geltsu, amesezko ta illunez baltzak . . .

Begion betazpi gogatsuetan
atsekabe ixillen lorratza dager,
ondar gazian lez, lekaroetan
doan itxas-uiñan erratza alaber.

Betikoz maiteki adi naizue,
begi eder, betsein sotorroindunak,
bekoki azpitik dirudizue
osin ur aundiak eta bigunak.

Adi ba maiteki, begi apaiñez
eguzki bi, buru edergarriak,
ta bere ezpan gordin gorrien gaiñez
dirudizuez lor-leiza larriak.

Adi ba maiteki, begi islatsuok,
ta ni iltean, maite zauedaz ainbat!,
nere uzkin zurian ixuri zuok
negarmin maikoen uial ezti bat.

[Euskeraz: Jon Beistegi'k)

¡Dios mío!

¿Por qué hiciste, Señor —oye mi queja—,
al tigre que, famélico, del risco
abrupto baja al sosegado aprisco
a hundir su garra en la apacible oveja?

¿Por qué, Señor, creaste la serpiente
que, oculta en un recodo del camino,
hinca en el descuidado peregrino
su largo, agudo y venenoso diente?

¡Ah!, todo puede ser. . . ; pero ¡Dios mío!,
¿por qué formaste al hombre, ese sombrío
ser, más feroz que el tigre y la serpiente?

¡Como él junta al instinto de la fiera
la reflexión, sobre el planeta impera,
refina el mal y se hace omnipotente!

"Le aserraron el cráneo"

aueta ori ere ez ote dabil beretan
itxaroz dagon neskatz baten arima billa?

Uts-utsik dago txaidea; gaua, otz-otzik;
utsune argi batean dager illargia;
goian zulsarea dakusgu bai irikirik
ta itzaliz doaz ereskiak banan-banan.
Abeslariak bere atz sendoakin oratzean
leio zarreko burdiñari, zinkurin atzean
zinkurinka eten zan zerutza gau guztia
ta kitarraren aria.

(*Euskeraz:* S. Muniategi'k)

Los maderos de San Juan

¡Aserrín!,
¡aserrán!
Los maderos de San Juan
piden queso, piden pan;
los de Roque,
alfondoque;
los de Rique,
alfeñique;
¡los de Triqui, triqui, tran!

Y en las rodillas duras y firmes de la abuela,
con movimiento rítmico, se balancea el niño,
y ambos agitados y trémulos están . . .
La abuela se sonríe con maternal cariño;
mas cruza por su espíritu como un temor extraño
por lo que en lo futuro, de angustia y desengaño,
los días ignorados del nieto guardarán . . .

¡Los maderos de San Juan,
piden queso, piden pan!
¡Triqui, triqui,
triqui, tran!

Esas arrugas hondas recuerdan una historia
de sufrimientos largos y silenciosa angustia,
y sus cabellos blancos como la nieve están;
de un gran dolor el sello marcó la frente mustia,
y son sus ojos turbios espejo que empañaron
los años y que ha tiempo la forma reflejaron
de cosas y de seres que nunca volverán . . .

Doniane-zurak

Zerrautsa!,
zur-autsa!
Doniane
tantai-zurak
gaztai eske, ogi eske;
Erroke'nak
alpandoke;
Errike'nak,
alpeñike;
Triki'renak, triki, tran!

Eta amamaren belaun-gain txit sendoetan,
igiera neurkatuz, ukur dagi aurrak,
ta nasi dagoz biak, dardar eraginda ...
Irríño ezpanetan ama-txeraz zarrak;
barrun baiña izu bitxi legez dabilkio,
axanpaz ta ames zoro, gerora zer izan
leitekezan lobaren egun ez-ezaunak . . .

Doniane
tantai-zurak,
gaztai eske, ogi eske!
Triki, triki,
triki, tran!

Anitz oiñaze luze ta larri ixillezko
kondaira dautse tximur sakonak oroitzen,
t'edur lez zuri aren uleak agertzen;
lor-samiñak marratu eutson kopet soilla,
ta aren begiak dira, urteak lausotu
ta iñoiz biurtuko eztiran izakien
itxurea aspaldi isla euskuen ispillu . . .

Los de Roque, alfandoque,
¡triqui, triqui, triqui, tran!

Mañana cuando duerma la anciana, yerta y muda,
lejos del mundo vivo, bajo la oscura tierra,
donde otros, en la sombra, desde hace tiempo están,
del nieto en la memoria, con grave son que encierra
todo el poema triste de la remota infancia,
cruzando por las sombras del tiempo y la distancia,
de aquella voz querida las notas vibrarán . . .

Los de Rique, alfeñique,
¡triqui, triqui, triqui, tran!

Y en tanto, en las rodillas cansadas de la abuela,
en movimiento rítmico se balancea el niño,
y ambos conmovidos y trémulos están . . .
La abuela se sonríe con maternal cariño,
mas cruza por su espíritu como un temor extraño
por lo que en lo futuro, de angustia y desengaño,
los días ignorados del nieto guardarán . . .

¡Aserrín!,
¡aserrán!
Los maderos de San Juan
piden queso, piden pan;
los de Roque,
alfandoque;
los de Rique,
alfañique,
¡triqui, triqui, triqui, tran!,
¡triqui, triqui, triqui, tran!

Erroke'nak, alpandoke,
triki, triki, triki, tran!

Biar amonak, iger ta ixil, lo eitean,
mundu bizitik urrun, lur goibel azpian,
askoak lendik zurbil dagozan tokian,
illobaren oroian, len-umezaroko
olerki itsa artzen dauan ots astunez oso,
aldi-lekuen itzal barruna jardunik,
ots maite aren notak dardar dabe egingo . . .

Errike'nak, alpeñike,
triki, triki, triki, tran!

Ta artean, amamaren belaun jausietan,
igiera neurkatuz, ukur dagi aurrak,
ta nasi dagoz, dardar eraginda . . .
Irriño ezpanetan ama-txeraz zarrak;
barrun baiña izu bitxi legez dabilkio,
axanpaz ta ames zoroz, gerora zer izan
leitekezan lobaren egun ez-ezaunak . . .

Zerrautsa!,
zur-autsa!
Doniane
tantai-zurak,
gaztai eske, ogi eske;
Erroke'nak,
alpandoke;
Errike'nak.
alpeñike,
triki, triki, triki, tran!
triki, triki, triki, tran!

(Euskeraz: J. Onaindia'k)

MANUEL URIBE VELASQUEZ
(1862-1894)

Ante la tumba de un usurero

Yo no traigo a tu estrecha sepultura
Ni amargo lloro, ni endulzado acento,
Ni vengo a suspirar al son del viento
Que gime en los cipreses con pavora.

Tampoco vengo a orar, porque la usura
Poca piedad inspira al pensamiento;
Tú lo sabes muy bien: el mil por ciento
Mata en el labio la plegaria pura.

Yo vengo a que me digas solamente
Qué dijo de tus libros criminales
Aquel gran contador Omnisapiente,

Y si glosó tus cuentas, por las cuales
Mi reloj te llevaste y mi pendiente,
En la suma infeliz de quince reales.

MANUEL URIBE VELASQUEZ
(1862-1894)

Lukurreru baten illobi aurrean

Ni ez nator ezeren billa zure illobi aurrera,
Nik ez dakart negarrik, ez zurikerizko abotsik;
Nekosta ilduratie ari dan aizearen doiñura,
Ni ez nator asperenka ta ikaraz ain bildurturik.

Ez nator, ez, zuri arrenka otoitzez auspezturik,
Lukurkeriak ba ezin lezake burutu maitasunik;
Zuk ori ondo dakizu, euneko milla ordaindurik
Ezpanakin ezin dala otoiztu eskari bigunik.

Jakinguraz nator ni, zure azken-orduko estualdiak
Zure zenbaketazko idazki gaizkillea aztertuz,
Zer esan zuan zenbatzaille onena dan Epaikariak.

Eta zure lapurketa, maitzurkeri gaiztoak azalduz,
Niri kendutako ordukari ta belarriko bitxiak . . .
Nola jabetu ziñan amabost errial triste ordainduz.

{Euskeraz: S. Muniategi'k)

GUILLERMO VALENCIA
(1873-1943)

*De lodo lo escrito amo solamente lo que
el hombre escribió con su propia sangre. Es-
cribe con sangre y aprenderás que la sangre
es espfritu.*

Federico Nietzsche.

Anarkos

En el umbral de polvorosa puerta,
sucia la piel y el cuerpo entumecido,
he visto, al rayo de una luz incierta,
un perro melancólico, dormido.
¿En qué sueña? Tal vez árida fiebre
cual un espino sus entrañas hinc
o le finge los pasos de una liebre
que ante sus ojos descuidada brinca.
Y cuando el alba sobre el Orbe mudo
como un ave de luz se despereza,
ese perro nostálgico y lanudo
sacude soñoliento la cabeza
y se echa a andar por la fragosa vía,
con su ceño de inválido mendigo,
mientras mueren las ráfagas del día,
para tornar a su fangoso abrigo.
Hundido en la cloaca
la agita con sus manos temblorosas,

y de su tumba miserable, saca
tiras de papel, cadáveres de cosas.
Entre tanto, felices compañeros
sobre la falda azul de las princesas
y en las manos de nobles caballeros
comparten el deleite de las mesas;
ciñen collares de valioso broche,
y en las gélidas horas de la noche
tienen calor, en tanto que el proscrito
que va sin dueño entre el humano enjam
tropieza con el tósigo maldito
creyendo ahogar el hambre,
y en las hondas fatigas de veneno
echado sobre el polvo se estremece,
fatídico temblor le turba el seno,
y con el ojo tímido, saltando,
sobre la tierra sin piedad fallece.
Todos vuelven la faz, nadie le toca:
al bardo sólo que a su lado pasa,
atedia la frescura de su boca
"donde nítidos dientes
se enfilan como perlas refulgentes" . . .

* * *

Mísero can, hermano
de los parias, tú inicias la cadena
de los que pisan el erial humano
roídos por el cáncer de su pena;
como tú se acurrucan en los quicios,
o piden paz, sin una mano amiga,
al silencio de oscuros precipicios.

eta illobi arbuiagarri artatik
ingi-zati ta gauz-illotzak dauz ataraten.
Lagun zori obekoak, bitartean,
erregiñgaien altzo urdin gaiñean
eta zaldun omen aundikoen eskuetan,
barne dituzu maietako irritsetan;
aille baliotsua dabe lepoan,
eta gau otzeko orduetan beroa;
jaberik bako etxetik jaurtiak, oster, a,
gizonteri artean zear doalarik,
erasten dauan gosea ito uste izanik,
zital-ikutu madarikatuaz

topez dagi,
ta, auts-gaiñean etzunik, edenaren
itomen lardaren mende dago lazki,
eriotz-ikarak mintzen dautso barrena,
ta begi izukorrez, jauzi-jauzika,
lurrean ilten da ezeren erruki bage.
Arpegia itzuliz, iñok eztau ikutzen:
albotik doan koplariari bakarrik
naskagarri yako aren aoko ezetasuna,
"arri-pitxi zir-zartekoak legez
lerrotzen diran ortz gardenez" betea . . .

. . . *

Zori bageko txakur, pari zirtzillen
anaitzako, ik asten dok ziur asko
zigor-minbiziak janiko giza-eremua
zapaltzen dabenen kate-tira astuna;
ate-orpoetan kukultzen dira i lez,
edo bakea eskatzen, esku adiskide bage,
amiltegi illunetako ixil aundian.

Son los siervos del pan: fecunda horda
que llena el mundo de vencidos. Llama
ávida de lamer. Tormenta sorda
que sobre el Orbe enloquecido brama.
Y son sus hijos pálidas legiones
de espectros que en las noches de sus cuevas,
al ritmo de sus tristes corazones
viven soñando con auroras nuevas
de un sol de amor en mística alborada,
y, sin que llegue la mentida crisis,
en medio de la mísera nidada
¡los degüellan las ráfagas de tisis!

Los mudos socavones de las minas
se tragan en falanges los obreros
que, suspendidos sobre abismo loco,
semejan golondrinas
posadas en fantásticos aleros,

Con luz fosforescente de cocuyos,
trémula y amarilla,
perfora oscuridad su lamparilla;
sobre vertiginosos voladeros
acometen olímpicos trabajos,
y en tintas de carbón ennegrecidos,
se clavan en los fríos agujeros,
como un pueblo infeliz de escarabajos,
a taladrar los árboles podridos.
Sus manos desgarradas
vierten sangre; sarcástica retumba
la voz en la recóndita huronera:
allí fue su vivir; allí su tumba

Ogi-morroiak dira: azpiratuen mundua
osotzen dauan basakar talde ugaria.
Sugar miazka-zale. Ekaitz makets
Ludi gaiñez zororik orro dagiana.
Ta saldo laruak dira aren semeak
euren leiza-gauetan, iratxo antzera,
biotz zurbilduen igikun otsera,
goiz-argi barriz ameska bizi diranak,
oillarite ezkutuzko maite-eguzkiz bai,
ta, guzur-aldaketa iñoiz jaritxi bage,
euren kabi-aldi landerraren erdian
etika- boladak burua mozten dautsoenak!

* * *

Meatokietako azpi-zulo ixillak
saldoka iruntsi oi dabez langilleak,
neurriz-gorako amiltegian dingilizka,
ikus-lillurazko txitxinpetan elai lez
edozelan kokaturik dabiltzan beargiñak.

Kokuien argi dirdiratsuz
—ñirñir ta laru—,
illuna zillotzen dau arein kruseluak;
zorarazten daben pendoitz gaiñetan
olinpiar lanak dagiez ausardiz,
ta ikatz-margotan baltzituak
uts-zillo izoztuetan itsasten dira,
antxadar erri zori bagea iduri,
zugatz-tantai ustelduak zilkatzeko.
Arein esku-azal urratuei
odola darie; sistakari durunduz dago
abotsa zirkinzulo ostenduan:
an arein bizi-aldia; an il-obia be

les abrirá la bárbara cantera
que inmóvil, ruda, sus alientos gasta
o frenética, y ciega y bruta y sorda,
con sus olas de piedra los aplasta.

* * *

El minero jadeante
mira saltar la chispa de diamante
que años después envidiará su hija,
cuando triste y hambrienta y haraposa,
la mejilla más blanca que una rosa
blanca, y el ojo con azul ojera,
se pare a remirlarla, codiciosa,
al través de una diáfana vidriera,
do en mágicos joyeles
de rubias sedas y olorosas pieles,
fulgen piedras de trémulos cambiantes,
ligadas por artistas
en cintillos: rubíes y amatistas,
zafiros y brillantes,
la perla oscura y el topacio gualda,
y en su mórbido estuche
de rojizo peluche,
como vivo retoño, la esmeralda.
La joven, pensativa,
sus ojos clava, de un azul intenso,
en las joyas, cautiva
de algo que duerme entre el tesoro inmenso,
no es la codicia sórdida qué labra
el pecho de los viles:
es que la dicen mística palabra
las gemas que tallaron los buriles:

arrobi zakarrak edegiko dautse
igige, gordin, arein arnasa aituz,
edo erosuar, itsu ta latz ta gor,
bere arrizko olatuz zapaltzen ditula.

Mea-gizonak, arnasots batean,
diamant-arrizko txingarrak dakus jauzika;
urteak joanez bere alabak bekaiztuko ditunak,
itun ta gosez ta zarpaiitsu aurkitzean,
larrosa zuria baizen zuri matraillak,
betazpi urdin-urdiñakaz begi biak,
bein ta barriz asko-nai ta diru-zale,
erakustoki argitsu baten zear begira,
seda gorrizko ta narru usaintsuzko
bitxiska miresgarrietan,
argirudi dardartizko arriak,
kerpa lanean trebe ziranak an lotuta;
errubiak eta izar-arri ubelak,
sapirrak eta arri biziak,
pitxi illuna ta topazi oria,
ta billo gorrizkadun
kutxatilla belaskan,
arabegi bizia lez, esmeral-pitxia.
Neskatx gazteak, oldozkor,
bere begiak, oztin biziak,
bitxietan josten ditu, altxortegi atan
lo datzan zerbaitegan atxilo;
ezta biotz zekena kezkatu daroan
diru-zalekeri saskel zikutza:
itz ezkutuak esaka bait-daukoz
xixel-zanak landuriko txirlarriak:

ellas proclaman la fatiga ignota
de los mineros; acosada estirpe
que sobre recio pedernal se agota,
destrozada la faz, el alma rota,
sin un caudillo que su mal extirpe.
El diamante es el lloro
de la raza minera
en los antros más hondos de la hullera:

¡Loor a los dolientes campeones
que vertieron sus lágrimas
entre los socavones!

Es el rubí la sangre
de los héroes que, en épicas faenas,
tiñeron el filón con el desangre
que hurtó la vida a sus hinchadas venas:

¡Loor a los valientes campeones
que perdieron sus vidas
entre los socavones!

El zafiro recuerda
a los trabajadores de las simas,
el último girón de cielo puro
que vieron al mecerse de la cuerda
que los bajaba al laberinto oscuro:

¡Loor a los sepultos campeones
que no verán ya el cielo
entre los socavones!

Y el topacio de tinte amarillento
es recóndita ira
y concreciones de dolor; lamento
que entre el callado boquerón expira:

¡Loor a los cautivos campeones
que como fieras rugen

argi dirautse oneik meatzariak izaniko
neke ez-ezauna; sukarri latz gaiñean
agortu oi dan gizaki eraso,
betartea zeaturik, gogoa ausita,
gaitza zusterkatzeko nagusirik bage.
Diamant-arria mea-zuloetako
endaren negar-arpulua dozu,
ikatz-lezarik sakonenean ixuritakoa:

Aintza garaille naigabetuai,
azpiko zulo artean
malko-ixurika jardun izanai!

Giz-urenen odola da errubia,
epiku langintzan euren zan puztuai
bizitza ken-azi eutsen odol-jarioz
meatz-zerroa gorrizkatu ebenena:

Aintza garaille kementsua!,
azpiko zulo artean
euren bizitzak galdu ebezanai!

Sapirrak lezetako langilleak
dakarskuz gogora, oxin illunera
erasten zitun sokatik zabuka
ikusitako zeru garbiaren azken-zerra:

Aintza garaille obiratuai,
azpiko zulo artean
zerurik geiago ikusiko eztabenai!

Eta margo beillegizko topazi
ixilleko asarrea dozu
ta miñezko gogor-uneak; zulo-ao ixil
artean itotzen dan negar-adia:

Aintza garaille atxilotuai,
azpiko zulo artean

entre los socavones!
La joven pordiosera
huyó ...

* * *

¿Qué formidable vocerío
pasa volando por la azul esfera,
con el lejano murmurar de un río?
Es una turba de profetas. Vienen
al aire desplegando los pendones
color de cielo; sus cabezas tienen
profusas cabelleras de leones.
En sus labios marchitos se adivina
el himno, la oración y la blasfemia;
llama febril sus ojos ilumina
de sacros resplandores;
cálidos como el rostro de la Anemia,
llegaron ya: son los Conquistadores
del Ideal: ¡dad paso a la Bohemia!
Ebrios todos de un vino luminoso
que no beben los bárbaros, y envueltos
en andrajos, son almas de coloso,
que treparán a la impasible altura
donde afilan sus hojas los laureles
con que ciñes de olímpica verdura
en tu vasto proscenio
a los ungidos de tu crisma, ¡oh Genio!
Aquél muestra su aljaba
de combate, repleta de pinceles;
el otro vibra, como ruda clava,
un cuadrado martillo y dos cinceles;
se interrogan, se dicen sus proyectos

pizti antzera orro dagienai!

Gazte eskaleak

igesari emon eutsan . . .

* * *

Zer da zarata izugarri ori,
borobil oztiñean zear egaz doana,
ibai baten urrun-gurgurai bai'litzan?
Igarle-aldra dozu. Ortzi-margozko
ikurriñak zabalik datoz aidean;
leoien adats naro oparotsuak daukez
euren buru koskoetan ugari,
Ezpan liorretan ereserkia,
otoitza ta biraoa agiri yakez;
sugar urduriak dirdira sagaratuz
argitzen ditu arein begiak;
"Odol-gaiso"-ren soa baizen berotsu
eldu dira dagoneko: Ames ederraren
Menderatzailleak doguz: toki Bohemia'ri!
Ordi dagoz danak, basatiak edan ez daroen
ardao ditzikorrez, eta zatar-dindirriz
biribilduta, erraldoi-gogoak dituzu;
ereiñotz ostoak zorrozten diran gaiñera
igongo yatzuz oso-oso izukaitzak,
olinpiar abar ezez zuk, o Asmamen!,
zeure antzoki-aurre zabalean noski,
gantzuki donez igurtzitakoak
jazen dozuzan gaindura ortara.

Ak burruka karkaitza darakus,
ixatx eta pintzelez ornidua;
mailluki lau bat ta zizel bi besteak,
txurra zakar antzera, dardarka darabiltz;
galde-galdeka, betiko lorratzak itxiko

de obras que dejarán eternos rasgos:
aunque sean insectos,
el mármol y el pincel los harán astros.
Un escultor ofrece
pulir la piedra como fino encaje
para velar un seno que florece
bajo la tenue morbidez del traje;
aquése de fosfórica pupila
que las del gato iguala,
discurre solo en actitud tranquila
con el azul cuaderno bajo el ala;
y el bardo decadente,
el bardo mártir que suscita mofas,
levantará la frente,
alto nido de férvidas estrofas,
y de sus labios, que al reír no alegra,
brotará el pensamiento
como una águila negra,
con las alas enormes
desplegadas al viento,
para cantar la Venus Victoriosa,
cuya violenta juventud encarne
el espíritu alegre de la diosa
en las melancolías de la carne.

. * .

El músico, doblando la cabeza
sobre la débil caja
de su violín sonoro,
dice la voz que de los cielos baja
como un perfume del jardín de oro
y, agarrando del cuello enflaquecido

dabezan lan-asmoak alkarri esanik:
naiz-ta mamorroak izan, atxurdiñak
eta ixipuak izarki dabez biurtuko.

Taillugille batek, diñoanez,
arria berak landuko ei dau xerra leuna lez,
soiñeko mee, belaska azpian ernemin dan
bular bat estaltzeko aiñakoa;
beste a, katuarena bardinkatuz,
su-zotz antzeko begi-niniduna
bakarrik dabil, itxuraz nare,
egats azpian ingurrazti oztiña;
eta koplakari kankail ebenduak,
ziñu-karkarak jalgi-azten dabezan
koplakari ziñopak, bere bekokia,
ahapaldi sutsuzko kabi beroa, jasorik,
barre egiñik be poztuten eztaben
aren ezpanetatik, arrano baltz iduri,
oldozkuna erneminduko da bizi,
ta bere ego aundi zabalak
aizetan txairo,

kantuz goretsiko dau Venus Garaillea;
aragiaren kadentasun sotillean
maminduko dau jainkosaren ats pozkorra
bere gaztetasun zakar sutsuak.

-X- X -X-

Eres-zaleak, burua makur
bere bibolin soiñutsuaren
konka maskal gaiñean,
urre-baratzetatik usaiña lez
zerutik jasten dan otsa diño,
ta, gatxepelezko tresnari

el tísico instrumento,
lo hace gritar con trágico alarido,
y con ahogados trémulos simula
el sollozo de un mártir que se queja
bajo el negro dogal que lo estrangula;
y sobre todos flota,
como un sueño de amor en noche larga,
la paz del arte que su duelo embota
y su llagado corazón embarga.

Desventurada tribu
de miserables, vuestro ensueño vano
vuela sólo entre sombras como vuelan
las grullas en las noches de verano.
Esa lumbre asesina de los focos
que doran las soberbias capitales,
arderá vuestras frentes inmortales
y vuestras alas de zafir, ¡oh Locos!
Sin pan, ni amor, ni gruta
donde dormir vuestras febriles horas,
sucumbis a la bárbara cadena,
que os empuja a los légamos del Sena.
¡Ganes, minero, artistas,
el árido recinto que os encierra
consume vuestros lívidos despojos;
y en el agrio Sahara de la tierra
sólo hallasteis el agua ... de los ojos!
¡Huid como bandada tenebrosa
de pájaros nocturnos que entre ramas
hienden la oscuridad sin voz ni huella;
molid: para vosotros

sama mearretik oratuaz,
izugarrizko garraisiak
emon azten dautsoz,
ots-dardara ito-ebagiakaz
sakailtzen daun billur baltz azpian
zotin dagin ziñoparen negarra
antzera emonik;
eta guztien gain klunkatzen da;
gau luzean maitezko ametsa iduri,
miña sorgortu ta biotz zauritua
asetzen dauan antze-bakea.

* * ❧

Zori gabekoen eli errukarria,
zuen alperrikako ames zoroak
uda-gauetan kurrilloak lez
bakarrik egaz dagi itzal zear.
Uri arroak urreztatzen dabezan
argi-moltzo, sugar iltzaille orrek
zuen betortz ezilkorrok dauz sutuko
ta zuen sapir-egoak, o Zoro aundiok!
Ogi barik, maitasun barik, zeuen ordu
sukartsuetan lo egiteko arpe barik,
Sena'ko lokatz artera bultz daragitzen
kate basati pean jausiko zarie.
Txakur, meatzari, ertilari,
barne zaukiezan esparru elkor orrek
zuen ondakin ubel-oriak iresten ditu;
eta lurreko Sahara garratzean
begien ura . . . bakarrik idoro dozue.
Iges egizue, iges bai, ez ots ez lorratz,
illuna adar artean zearkatzen dauan
gau-txori samalda aizarotsua legez;

no se difunde el día
ni se columpia en el Cenit la estrella
que llamaron los hombres alegría!
Cuán lejos de vosotros se levanta,
sobre columnas de marfil bruñido,
la ciudad de los Amos, donde canta
su canto de ventura
el gozo, entre las almas escondido.
Allí todos olvidan
vuestra angustia. Los árboles no dejan
—de silencio cargados y de flores—
llegar, de los vencidos que se quejan,
el treno funeral de sus dolores;
allí, cual un torrente
que de sus ondas a dormidas charcas,
resbalan fríamente
con ruido sonoro
el oro a los abismos de las arcas.
Allí las sedas crujen
como crujen las carnes sacudidas
por las fieras: son fieras que no rugen
los seres sin piedad. Ved cómo pasa
sobre el mármoleo suelo,
con su capa de pieles, la hembra dura
cual un oso gigante sobre el hielo.
¿Por qué se abren sus ojos
desmesuradamente?
¡Ah! Si es que apunta con fulgores rojos
el astro de la sangre por Oriente.
Bajo el odio del viento y de la lluvia
por la frígida estepa se adelantan
los domadores de la "Bestia rubia";

il zaiteze: zuentzako
ezta eguna edatzen,
ezta gizonak poza deitu eutsen izarra
Gingan kulunkatu bere!
Zuengandik urrun jaikitzen da, bai,
boli aratz-aziko zutoin gaiñetan,
Ugazaben uria, pozak, gogo artean
ostenduta, bere zori-kanta dabesan uria.
Danak aanzteratu dabe an
zuen larri-miña. Zugatzak
—ixil ta lorez zamatua—
eztabe izten, uluz dagozan azpiratuen
neke-miñezko eriotz-erosta eltzen;
an, euren sorburu-beera istil lokartura
ixil doan ur-arangel antzera,
otz-otz txirrist urreak dagi
oskar soiñutsuaz
kutxetako amiltegi sakonera.
Ziriko ta sedak kirriz-karraz dagie an
piztiak iñarrostitako aragiak lez:
erruki bageko izakiak kurrinkarik
ez dagien piztiak baitira.
Ikus zelan doan atxurdiñezko zoru gain
bere narruzko longaiñezkoz, eme latza
leikarraldo gaiñetik artz aundia lez.
Zer dala-ta edegiten ete dira
aren begiak, orren neurri-gaberik?
A! Odol-izarra baitago agertzen
Sortaldetik, ditzira gorritan.
Aize ta euri asarrepean
eremu izoztu zear aurrera datoz,
"Pizti gorria"-ren ezleak datoz;

ya los perros sarnosos
se tornaron chacales. De ira ciego
el minero de ayer se precipita
sobre los troncos. ¡Un airado fuego
entre sus manos trémulas palpita,
y sorda a la niñez, al llanto, al ruego,
ruge la tempestad de dinamita!
¡Son los hijos de Anarkos! Su mirada,
con reverberaciones de locura,
evoca ruinas y predice males:
parecen tigres de la selva oscura
con nostalgia de víctima y junciales.
El furioso caer de sus piquetas
en triza torna la vetusta arcada
que erigieron al Bien nuestros mayores;
y por la red de las enormes grietas
va filtrando, con tintes de alborada,
un sol de juventud sus resplandores.

* * *

Aquél un arma ruda
pide, que parta huesos y que exprima
el verbo de la cólera; filuda
por el trabajo, recogió su lima
de fatigado obrero,
y bajo el golpe de Lucheni, ¡muda
cayó la emperatriz como un cordero!

Pini, Vaillant, Caserío y Angiolillo,
vuestro valor ante la muerte espanta
negros emperadores del cuchillo,

txakur ezkabitsuak dagoneko
txakal, txakur-otsa biurtu dira.

Sumin ta itsu, atzoko meatzariak
enbor gaiñera doaz trumilka.
Su aizetua daukie esku artean,
ta aurtzaro, negar ta eskariai sorgor,
lergai ta dinamita ekaitzak orroe!
Anarkos semeak dira! Arein soak,
eroaldiko dirdir-galdaz,
galmen ta jaustek dakarz gogora:
Oian illuneko katamotzak dirudie
ilgai ta iitegi miñez.
Euren pikotxen jausi suak artuak
puska biurtzen dau gure asabak
Ona-ri jaso eutsoen arkupe zarra;
iraziz doa, goiz-erraiñuzko margoz,
gaztaro-eguzki batek bere dirdirak.

* * *

Ak iskillu zakar bat eskatzen dau,
azurak zatitu ta asarre-itza
eratz daikena; lanaren lanez
zorroztua, langille neketuaren
karrakak bildu ebana,
ta Lutxeni'ren zartapean, ixil
jausi zan, bildots antzo, erregiñal

* * *

Pini, Vaillant, Kaserio ta Angiolitxo,
zuen erio aurreko kemenak ikaratzen:
aiztoaren jaurlari baltzak,
ogi-muskil antzera

que rendís la garganta
como débil mendrugo
a las ávidas fauces del verdugo:
de duques y varones
no circundó plegada muselina
vuestros cuellos. Allí donde culmina
el clorado listón de los toisones
os dió la guillotina
su mordisco glacial: vendimiadora
que la tez y las almas decolora.

* * *

Aún parece vibrar en mis oídos
la voz de Emile Henry; ya bajo el hacha
iba a rodar su juvenil cabeza,
como la flor al soplo de la racha,
y exclamó: "¡Germina!"

y de la herida
corrió una fuente de licor sagrado
que bautizó la historia dolorida
de los siervos, con óleo ensangrentado,
Y ése fue dulce al comenzar: renuevo
de razas de alto nombre.
¿Quién me dirá si un huevo
es de torcaz o víbora? La mente
no sabe leer lo que en el tiempo asoma:
el hombre, como el huevo,
¡en nidos de dolor será serpiente!,
¡en nidos de piedad será paloma!

Por donde quiera que mi ser camine,
Anarkos va, que todo lo deslustra:

zeuen iztarriak iltzaillearen
autz gosepean jarten dozuezanak:
duke ta gizon urenenak,
etzitun inguratu besana tolestuak
zuen samak. Zarpa zerrenda urreztua
gorenera eltzen dan lekuan
emon eutzuen lepo-aietzak
bere grauskada izoztua: larrantz ta gogo
margultzen ditun mats-batzaillea.

* * *

Emile Henry'ren abotsa oindiño be
durundi daistala dirudit belarrietan;
aizkorape jausteko zan buru gazteak,
lorea aize-burrunbaren atsaldipean lez,
ots egin eban: "Erne!"

* * *

jalgi zan ur donezko iturri bat, ta zauritik
jopuen kondaira neketsua ugutzi ta zauritik
ebana, odolezko orioagaz.
Ta eder zan olan astea:
izen aundiko endaen aldaska.
Arrautza bat nok esango ete daust
pagusoarena ala ziraunarena dan?
Aldian dagerrena adimenak ez daki
irakurten: gizonak, arrautzak lez,
suge izango oiñaze-abietan!,
uso izango errukizkoetan!

Nire izakia doan bidez
Anarkos be ba-dabil, oro lausotuz:

¡un rito secular que no decline
ante el puño brutal de Bakunine,
y, el heraldo feroz de Zarathustra!

* *

No puede ser que vivan en la arena
los hombres como púgiles: la vida
es una fuente para todos llena.
¡Id a beber esclavos sin cadena;
potentado, tu siervo te convida!
¡Nada escuchan! ¡Los pobres, a la jaula
de la miseria se resisten fieros,
y con brazos de adustos domadores
y el ojo sin ternura, los enjaula
la codicia sin fin de los señores!

* * *

Quién los concillará? Tibios reflejos
de una luz paternal y vespertina
visten de claridad el linde vago;
es que el Patriarca de los Ritos viejos,
de sapiencia cubierto, se avecina,
con la nerviosa palidez de un mago.

Es flaco y débil: su figura finge
lo espiritual; el cuerpo es una rama
donde canta su espíritu de esfinge;
y su sangre, la llama
que los miembros cansados transparenta;
de su nariz el lóbulo movable
aspira lo invisible,
son sus patricias manos una garra
febril y amarillenta;
¡es de los griegos la gentil cigarra
que con mirar el éter se alimenta!
Impasible se yergue

Bakunine'n ikubil latzaren aurrean
okertu oi eztan ekandu zar-zarra,
ta Zarathustra'ren mezulari ankerra!

* * *

Gizonak ezin daitezke ondarrean bizi
burrukan antzean: bizitzea
guztiontzat dogu iturri ase.
Kate bako jopuok, zoaze edatera;
aundiki, zeure morroiak dei dagitzu!
Eztabe ezer entzun! Gaixoak, ezaren
kaiolan eztabe gogo onez sartu nai,
ta ezle mukerren besoakaz,
ta begi samur bagakoz, kaiolatzen dabez
jauntxoen zekenkeri muga gabeak!

*

Nok ete alkar batu? Argi aitakor
eta arratsaldeko baten isla epelak
dizdiz-margoz jazten dabe ertz ezbaia;
Ekandu zarren Erkaba elduz bait-dator,
oso-osoan jakituriz jantzia,
dalako aztiaren larutasun kiriotsuz.

Aul da ta zimela: gogokia emoten dau
aren itxurak; gorputzak, oster,
bere leoi-atsak dabesan adar-kimua;
ta aren odolak, soin-atal nekatuen
sugarra antz-iduritzen dausku;
aren sudurreko parpail igikorrak
ager-gaitza dau urrupatzen,
aren esku urenak
erpa sukartsu ta ori dira;
gerkarren girgitxa panpoxa baita
eguratsa beatuz alikatzen dana!
Zutik jarten da izukaiz

—melancólico espectro—,
y de la cuerda blanca
a su místico plectro
la melodía arranca.
Impasible se yergue:
hay algo de felino
en su trémula marcha,
hay mucho de divino
en la nítida escarcha
que su cabeza orea.
Cruza sin otras galas
que la túnica nivea
que remeda las alas
rotas de un genio del celeste coro,
y sobre el pecho una
cruz de pálido oro.
Alza el brazo. La Europa
lo aguarda como a antiguo caballero
debajo de una bóveda de acero;
calla sus labios la soberbia tropa
de esclavos y señores:
el Pontífice augusto
trae el bálsamo santo que redime,
y calma la batalla de panteras;
evalúa lo justo;
ya va a decir el símbolo sublime . . . ,
y de sus labios tiernos
salió, como relámpago imprevisto,
a impulso de los hálitos eternos,
esta sola palabra:

"Jesucristo",

—irel-suzko betilluna—,
ta bere joare-zotz ezkutuari
ari zuritik
soiñu eztia jalgi-azten dautso.
Zutik jarten da izukaitz:
zerbait ba-dau katukiena
bere ibilkera ikaratian,
jainkozkorik asko dager, barriz,
burua egurasten dautson
antsigar aratzean.
Zeru-taldekoen arteko baten
egats apurtuak dirudien
txabus zuria daroa
soin-apaingarri bakartzat,
eta urre laruzko gurutzea
bular gaiñean.
Besoa jaso dau. Europa,
antxiñako zaldunzarra bai'litzan,
begira dauko, galtzairuzko gingapean;
jopu ta jauntxo aldra arroak
ixil daukiez euren ezpanak:
Apaizburu garaiak
jareiten dauan miritza dakar,
otso-burrukak baketzen dituna;
ba-daki zein dan zuzenaren muiña;
egi-sorta jalkitzera, oraintxe doa . . . ,
eta, ez-usteko tximistearen kideko,
arnas betikorraren eragin biziz,
urten da bere ezpan samurretatik
itz bakar au:

"Jesukristo".

(Euskeraz: J.

LUIS VIDALES
(1904-)

El paseo

El cielo espejea entre los árboles.
Los árboles se imaginan
que están a orillas de un lago color violeta.
Nosotros advertimos el engaño
y a grandes voces espantamos a los árboles
como si se tratara
de unos altos pájaros verdes
que hubieran escondido
en el plumaje
la otra pierna.

Cuando volvemos a casa
empieza a holgar en mi cabeza
el sombrero de copa de la noche,

Vamos de brazo
—monograma significativo
que no hemos podido descifrar . . . —.
En mi pupila del lado del paisaje
llevo el monóculo de la luna.

LUIS VIDALES
(1904-)

Egurasketa

Zugatz artean ispillutzen da zerua;
ta zugatzai iruditzen zaie,
bioletazko urmael baten ertzean daudela.
Guk ba-dakigu, bai, ori gezurra dala
ta oiuka uxatzen ditugu zugatzok,
luma artean
beste ankea izkutatzen duten
txori orlegi,
aundi batzuk izango ba'lira bezela.

Etixerantza abiatu geranean
atsartuz datorkit, ene buruan,
gauaren txolezko txapela.

Besotik goaz, bai,
ulertu ezin izan degun
—len-izki esanguragarritik . . .—.
Ikuskaiaren alderdiko begi-ninian
daramat illargiaren berin bakarra.


El sueño aumenta de volumen
a través de la lente.
Si tú quieres soñar
y te hace falta un tónico,
vuelve la copa del cielo
y bébete el azul.

Tú escuchas,
Abres los ojos claros.
Y toda tú —pequeñita—
te quedas acurrucada
detrás de tus ojos claros.

Betaurreko bidez
geitzen du ametsak bere aundiera.
Zuk amets egin nai ba'dezu
ta bizigarriren bat bear izan ezkeru,
itzuli zeruaren txola
ta oztiña edan zazu.

Zu entzuten zaude.
Begi argiok zabaltzen dituzu.
Ta zu, dan-danori —ain txikia izanik—
makurka gelditzen zera
zeure begi argion atzetik.

{Euskeraz: S. Muniategi'k}



ISMAEL ENRIQUE ARCINIEGAS
(1865-1930)

Canto al río Magdalena


Turbio y callado Magdalena, río
patria, de tardes y mañanas bellas,
y auras que vuelan con olor de bosque,
auras de vida:

¡Cuál fue mi anhelo en la niñez remota,
cerca de arroyo de tranquilas aguas,
verte algún día, entre playones, y altos
troncos de ceibas!

Mírome ahora, y en tu origen pienso,
páramo agreste en solitaria cumbre
donde has nacido, bajo sombra errante
de alas de buitres.

Frágiles hojas, frailejón y juncos
sólo tu cuna entre las rocas fueron . . .
hoy vas cruzando, en majestad y sólo,
vírgenes selvas.

¡Tiempos lejanos, cuando el indio erguía
pobres bohíos! . . . Donde fueron chozas,



se *alzan*, a empuje de moderno brazo,
fábricas y urbes.

Iban entonces sobre tí canoas;
leves bajaban o subían lentas,
mientras al golpe del remar se unía
canto aborigen,

Barcos ahora de penacho negro
abren tu mole, desatando espumas,
y altos dominan tu correr silente
raudos aviones.

Bellas auroras en tu limpio cielo
son tu alborozo al despertar el día,
y óyese al punto, del oído encanto,
gárrulo orquesta.

Grandes bandadas de pericos gritan,
céfiros suaves susurrando flotan
y ágiles, leves, mariposas niveas,
trémulas pasan.

¡Brisas inquietas que voláis silbando,
soplos del bosque, refrescad mis sienes!
¡Cómo os aspiro, cual vital aroma,
húmedas auras!

¡Sol! ¡Bello irradias en mitad del día!
Duermen los saurios en la gris arena,
y albas, muy lejos, en la orilla sola,
sueñan las garzas.

toki berberak gaur apaiñik daukaguz
uri-lantolez.

Orduan zure gain batelak zoazen;
arin beerantza naiz astiro gorantza,
arraun-ukaldiko eiorik ozen
aberri-kanta.

Urontzi aundiak gaur, motots baltzezko,
apar-jarioka zaitue zanpatzen,
t'egazkiñak goitik zure ixilla aringa
dabe urratzen.

Zure oskarbian eguantz liraiñak
alai betez dautzu eguna itxartuten,
ta bertan dantzuzu, belarri atsegin,
kantua ozen.

Perruket taldeak garrasi dagie,
zurmurrean dabiltz azkar aize meak,
ta zaloi ta bizkor, leun igaroz doaz
edur-panpiñak.

Txistuka zoazen aize urduriok,
oian atsaldiak, busti ene doak!
Nik pozik artuko —bizi-jarioa!—
zuen ezoak!

Eguzki! Eguna txit dozu argitzen!
Ondar arrean lo dagoz erugeak,
ta zuri, oso urrun, ur-ertz bakarrean,
amets koartzak.

Tardes del río . . . Tropical crepúsculo:
¡oro, topacio y arboles rojos!
¡Todo entre palmas y en azul, formando
rica paleta!

Bardo que sueñas: ¡a lo alto mira!
¡Copia! ¡Es lo tuyo! ¡Poesía patria!
¡Vibra en belleza, y lo que ven tus ojos
vibre en tu canto!

Clara, en cendales, la apacible luna
surge de pronto, y ensanchando el cielo
tiende en el agua, que en remanso duerme,
velo de lirios.

Coplas con ritmo de bambuco triste
cantan los bogas en la abierta playa,
y ávidos piden que a sus ojos baje
sueño tranquilo.

¡Como, de noche, en tu dominio aterra
fiera borrasca! El rimbombar del trueno
llena de espanto, y por el aire cruzan
ígneos fulgores.

Nubes y nubes se amontonan lívidas,
rayos las rasgan, la tormenta ruge;
llueve a raudales, y parece entonces
que húndese el cielo.

Viene la aurora. Con las aguas ruedan
árboles rotos; desbordando el río

Ibaiko arrasti . . . Illunabar bero:
urre, topaz-arri ta ortzalde gorri!
Oro palma artean, urdin, margo-para
aratz osoki!

O, ames dagizun koplari: so gora!
Alda! Zure baita! Aberri-kantua!
Ederrez dardar, ta begiz dakuzuna
ots biurtua!

Argi, eun argidun, illargi ezia
bat-batez da sortu, ta goian zabalik,
lo datzan ur gaiñez zitori-zapia
jar dau ederrik.

Eresak banbuko igikera itsean
kantuz dagoz bogak ondar edegian,
ta lo leuna daske begi jausientzat
irrits bizian.

Zuregan bai gabaz zirimol ankerra
izu dabilela! Ostotsaren dartak
ikaran sartzen, ta goi-zear dabilta
suzko dizdizak.

Laiñoak saldoka dira ubel metatzen,
tximistak urratuz, ekaitzak orru;
euria da ibaika, ta goiak dirudi
dala ondatu.

Egun-xinta dator. Zugatz-puskak doaz
urekin amilka; ibaiak, gaindituz,

cubre las playas, y el oriente finge
campo de rosas.

¿Qué los humanos ante tí? ¿Qué somos?
Polvo no más que aventará la muerte;
tú . . . siempre viendo, en sucesión eterna,
siglos y siglos.

Hundo la mente en el futuro, y veo
días de gloria y alborozo, cuando
quillas que vengan de marinas olas
rompan tus aguas.

Rieles tus ribas unirán a valles
y ásperas sierras y lejanos ríos;
émulo entonces se verá tu puerto
de urbes grandiosas.

Tiempos vendrán cuando potentes hachas
y hombres de audacia arrasarán tus bosques,
Gloria futura ceñirá sus frentes
de ínclitos lauros.

Cíclopes nuevos, mas de sangre nuestra,
yermos de ahora trocarán en vida,
y ellos oirán, en las edades posteras,
dianas de triunfo.

¡Río: entre robles y palmeras rueda!
¡Rueda, y los pueblos en abrazo junta,
pueblos hermanos en hermosa patria,
próspera y libre!

ondar-saillak destalz, ta larrosa-zelai da
osertza eduz.

Zure aurrean, zer gizonok? Zer gara?
Eriotzak aize egingo daun autsa;
zu . . . beti ikuskatzen, jarrai etengean,
urte-ardatza.

Geroan burua barrenduz dakustaz
aintzazko egunen poztasun betak,
itxas-uiñetatik zure urak austen
etor kadenak.

Mendi-maillo latzak eta ibai urrutiak,
zure ertzak ta aranak burdiñez batuko;
zure kaia ordun uri nagosien
leikide izango.

Etorko dira, bai, gizonak ta aizkorak
zure oian baltzak osoan eratziz.
Ospeak jantziko dauz arein buruak
ereiñotz argiz.

Kiklope barriak, baiña geure odol,
biziaz jantziko gaurko eremuak,
baita aditu be, datorken aldian,
garaitz-eresak.

Ibai: zabiltz areitz ta palma tartean!
Zabiltz, ta alkarbatu erriak besarkaz,
erri senideak aberri narean,
azke, zoriaz!

(Euskaraz: J. Onaindia'k)

EUSKAL IDAZTIAK - LIBROS EN VASCO

Joañixio (novela), Juan A. Irazusta
Ekaitzpean (novela), José Eizaguirre
Bizia garratza da (novela), J. A. Irazusta
Hamlet, Shakespeare, versión de B. Amezaga
Parnaso colombiano en euzkera, Kolonbiar olerti-txorta euzkeraz

BIBLIOTECA DE CULTURA VASCA

1. *El Genio de Nabarra*, por Arturo Campión.
2. *Primitivos Navegantes Vascos*, por Enrique de Gandía.
3. *Viajeros Extranjeros en Vasconia*, por Eneko Mitxelena.
4. *Pinceladas Vascas*, por Pierre Loti, Campión e Iturralde.
5. *La Aportación Vasca al Derecho Internacional*, por Jesús de Galíndez.
6. *El Conde Peñaflorida y los Caballeritos de Azkoitia*, de José de Aralar.
- 7/8. *La Democracia en Euzkadi*, por José de Aristimuño.
9. *De Música Vasca*, por los PP. Donosti y Madina.
10. *Orígenes prearios del Pueblo Vasco*, por Enrique de Gandía.
- 11/12. *La Lengua Vasca: Gramática, Conversación y Diccionario*, por I. López Mendizábal (2ª ed.).
13. *Los Vascos en el Uruguay*, por Tomás de Otaegui.
14. *En el Pirineo Vasco*, por Martín de Anguiozar.
- 15/16. *Los Adversarios de la Libertad Vasca, 1794-1829*, por José de Aralar.
17. *Estampas Vascas*, por Constantino del Esla.
18. *Riqueza y Economía del País Vasco*, por A. de Soraluze.
19. *Corsarios y Colonizadores Vascos*, por Michel Iriart.
20. *Instituciones Jurídicas Vascas*, por Manuel de Irujo.
21. *Breve Historia del País Vasco*, por I. López Mendizábal.
- 22/23. *Ignacio de Loyola y Francisco de Xabier*, por Pedro de Basaldúa.

- 24/25. *El País Vasco: Descripción General*, por I. López Mendizábal.
26. *Los Vascos y las Cruzadas*, por A. de Lizarra.
- 27/28. *El Derecho Vasco*, por Jesús de Galíndez.
- 29/30. *Arquitectura Popular y Grafía y Ornamentación de la Roturación Vasca*, por P. y J. de Zabalo.
31. *Pintores Vascos y no Vascos*, por M. Flores Kaperotxipi.
32. *La Compañía Guipuzcoana de Caracas*, por José Estornés Lasa.
- 33/34. *Flor de Canciones Populares Vascas*, por el P. Jorge de Riezu.
35. *La Victoria de Munguía y la Reconciliación de Oñazinos y Ganboinós*, por José de Aralar.
36. *Corografía de Guipúzcoa*, por Manuel de Larramendi.
37. *Domingo Garat, el Defensor del Biltzar*, por Isidoro de Fagoaga.
38. *Estudios sobre la Poesía Vasca*, por Jesús María de Leizaola.
39. *Estética Vasca*, por Bernardo Estornés Lasa.
40. *Francisco de Vitoria y el Nuevo Mundo*, por Enrique de Gandía.
41. *Blancos y Negros*, por Arturo Campión.
42. *El Hombre Prehistórico en el País Vasco*, por José Miguel de Barandiarán.
43. *Teatro Vasco: El Bardo de Itzaltzu. El Arbol dio una Canción. Mujeres en Berrogorria*, por Víctor Ruiz Añibarro.
44. *Arte Vasco: Pintura, Escultura, Dibujo y Grabado*, por M. Flores Kaperotxipi.
45. *La Conquista de Nabarra en el Panorama Europeo*, por P. Boissonnade, trad. de Tomás Yoldi Mina (tomo I).
46. *La Conquista de Nabarra* (tomo II).
47. *La Conquista de Nabarra* (tomo III).
48. *La Conquista de Nabarra* (tomo IV).
49. *Amaya o los Vascos en el Siglo VIII*, por F. Navarro Villoslada, versión reducida de Lore de Gamboa.
50. *La Tierra de Ayala y su Fuero*, por Jesús de Galíndez.
51. *Vascos en Cuba*, por Jon de Bilbao.
52. *Sor Juana Inés de la Cruz (claro en la selva)*, por Cecilia G. de Guilarte.
53. *Eneko Aritza, Fundador del Reino de Pamplona*, por Bernardo Estornés Lasa.
54. *Gure Aditza (El verbo vasco)*, por el P. Bonifacio de Ataun.
55. *La Crónica de la Poesía Popular Vasca*, por Jesús María de Leizaola.

56. *Sancho el Mayor Rey de los Vascos (I)*, por Anacleto de Ortueta, prólogo de Justo Gárate.
57. *Sancho el Mayor Rey de los Vascos (II)*, por Anacleto de Ortueta.
58. *Gernikako Arbola*, por Enrique García Velloso y versión euskérica de Domingo Jaca Cortejarena. Prólogo de Leonidas de Vedia.
59. *Iztegi. Erdera-euskera (castellano y vasco)*.
60. *Iztegi. Euskera-erdera (vasco y castellano)*.
61. *1808-1810 en la Poesía Popular Vasca*, por Jesús María de Leizaola.
62. *Colonizadores de la Epopeya Americana*, por Xamurre.
63. *Unamuno y el Vascuence*, por Martín de Ugalde.
64. *El Hombre Vasco*, por Vicente de Amezaga Aresti.
65. *Lo Vasco en Pío Baroja*, por Eloy L. Placer.

OTRAS PUBLICACIONES

- De Guernica a Nueva York Pasando por Berlín*, por José Antonio de Aguirre.
- Con los Alemanes en París*, por Pedro de Basaldúa.
- Cinco Conferencias Pronunciadas en un Viaje por América*, por José Antonio de Aguirre.
- Los Vascos y la República Española. Contribución a la Historia de la Guerra Civil*, por A. de Lizarra.
- Los Vascos en el Madrid Sitiado*, por Jesús de Galíndez.
- La Comunidad Ibérica de Naciones*, por Manuel de Irujo, Luis Araquistain, Cortesao y Pi y Sunyer.
- ¿Para qué? (de Alfonso XIII a Juan III)*, por Juan Antonio Ansaldo.
- En Defensa de la Verdad*, por Pedro de Basaldúa.
- Inglaterra y los Vascos*, por Manuel de Irujo.
- País Vasco y Estado Español: La Solución Argentina*, por Juan José Guaresti.
- Principales Conflictos de Leyes en América Actual*, por Jesús de Galíndez.
- El Libertador Vasco Sabino de Arana y Goiri*, por Pedro de Basaldúa.
- Pedro Garai, el Orfeo de Francia*, por Isidoro de Faguaga.
- De Vasconia a Buenos Aires, Historia de una Emigración en el Siglo XIX*, por A. 1. Garaicoechea.
- Rosas de Nínive. Comentarios sobre el Libro de Jonás*, por Gabriel de Biurrun Garmendia.
- Recital*, por José C. Vidaurreta.
- Estampas de la Guerra*, por Jesús de Galíndez.
- Argentina: Una Nueva y Gloriosa Nación*, por José C. Vidaurreta.
- A la Sombra del Aitzgorri*, por Olarso.
- Cultura Biológica y Arte de Traducir*, por Justo Garate.
- Gudaris. Recuerdos de Guerra*, por Sancho de Beurko.

Este libro, titulado
"Parnaso colombiano en euzkera",
se terminó de imprimir en los
Talleres Gráficos Sebastián de Amorrortu e hijos s. a. i. c. y f.,
Luca 2223, Buenos Aires, Argentina,
en el cincuentenario de la creación de
la Academia de la Lengua Vasca,
el veinticuatro de julio de mil novecientos sesenta y ocho,
ciento ochenta y cinco años después
del nacimiento del libertador
Simón Bolívar, en Caracas.

"Colonbiar olerki-txorta euzkeraz"
deritxon idazti onen irartzea
Amorrortu'tar Sebasten ta Semeen Irarkolan, s. a. i. e. ta f.,
Luka 2223'an, Argentina'ko Buenos Aires'en,
Eusko Ikaskintza sortu zanetiko berogaitamar garren urtea oroituz,
amaitu zan, milla bederatzireun ta
irurogeta zortziko garagarrillaren ogetalauan,
Simón Bolibar askatzaillea Karakas'en
jaio zanetiko eun eta larogeta bostgarren urtean.

